

Herririk Herri |2|
San Joan bezperako suak isiotuko
ditue Durangalde osoan

Erreportajea |16-17|
Laguardiako upategi barriak
etorkizunera begira jarri dau Launa



Lauhanka |26|
Katua, etxeko txikiene laguntasuna
bereganatzen dauen animalia

Kilometro Bertikala korrikalarien helburu

> Anboto Kilometro Bertikala lasterketa
Arrazolatik abiatuko da domekan.

> 3,2 km-tan 1.100 m-ko desnibela igo
beharko dabe parte-hartzaileek.

23



250 parte-hartzaile itxaroten ditue antolatzaileek; horreetatik 20 inguru emakumeak dira. Brinean

Antzinako ogibideak ezagutzeko aukera, bihar San Agustinen

Elorrio • Antzinako ogibideen erakusleho izango da bihar, maiatzaren 20an, Etxebarriko San Agustin. Ogibideen erakustaldiez gainera, artisauen erakusketa, umeendako jolasak, tailerrak eta ehiza-hegaztien erakusketa be antolatuko ditu Olazar auzo elkarteak.

2

Auzo elkarteek durangarrei eritzia eskatu deutsee

Durango • Durangoko Alde Zaharra (DAZ), Murueta Torre, Juan Itziarko eta San Fausto Berria auzo elkarteek herritarren eritzi azterketa egin dabe. Atera ditueen ondorien arabera, durangarrek gehien eskatzen dabena disuasino aparkalekuak eta eskualderako eguneko ospitalea dira.

3

Joseba Azkarraga liburu barriaz berbaz

KULTURA • Argitaratu barri dauen 'Berandu baino lehen' liburuaren eta berau idaztera bultzatu dabene gogoeten inguruan egin deusku asteen berba Joseba Azkarraga soziologo eta irakasle abadiñarrak.

13

Kluben arteko finalak gaur erabakiko dira

KIROLAK • Mallabiak eta Oizpek Euskal Herriko Kluben Arteko finalerdiak jokatu ditue gaur, Tornosolo trinketean. Berrizko klubak igaz irabazitako txapela defendatuko dau, Usurbilen kontra; hain zuzen be, usurbildarrak menderatu zitueen igaz finalean. Azkenik, Mañariak bihar jokatu dau Lekeition.

25

•Durango

Mugarrietan zehar bost orduko ibilbidea prestatu dau Alpinok

3

•Abadiño

Erdi Aroko Azoka eta haur parkea, asteburuan Traña-Matienan

4

•Otxandio

Jolas Eguna antolatuko dabe

8

EXCAVACIONES JON

MOTA GUZTITAKO INDUSKETAK
HONDAKINEN KITA

Jon Gurrutxaga Gallastegui

PROYECTOS, MONTAJES, DESMONTAJES, REPARACIONES, MANTENIMIENTO

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

San Joan bezpera, suak argituko dauen gau berezia

Suari zer txarrak erretzeko eskatzeko gaua

Durangaldeko hainbat bazterretan isiotuko dabe sua ekainaren 23an. San Joan bezpera badator, suari espiritu txarrak erre eta gurariak betetzea eskatzeko gaua. Aro barriari ondoetorria emoteko be bada ospakizun kristaura igarotako jai paganoa.

Durango, 22:30ean isiotuko dau sua Herria elkaratek; aurten, hiltegiaren atzealdean (Pagasarri kalearen alboan). Gaua girotzeko kontzertua hasiko da 21:00etan, eta gero txokolatea banatzea. Suzko zezenak irtengo dau 22:15ean.

Ilunkera hurreratu ahala ikusiko dira San Joan suak batean eta bestean

Elorriarrek 16:30ean hasiko dabe San Joanera igoera plazatik; askaria eta umeentzat dantzaldia izango dira han. Suzko zezena eta txalaparta izango dira, suaz gainera, Kiroldegiaren alboan, 22:00etan.

San Joanen, meza eta luntxa be izango dira hilaren 24an.

Garain, etxean isiotu ohi dabe sua, eta Otxandion auzoetako suetatik kalejira egingo dabe txistulariekin, 22:00etan. Berrizen, ohi dabenez, Berrizburun batuko dira. Aita San Migel plazan, 20:00etan, lotu dau sua isiotzeko ordua Mikel Deuna elkaratek lurretan. Herriafaria izango da eta Luhartzekin erromeria; Gazte Asanbladak be antzezlan eskainiko dau. Txistulari eta dantzariekin isiotuko dabe sua Mañarian, 20:30ean. Aurretik, 17:30ean, umeentzako jolasak eta ogitartekoak izango dira. San Joanen, meza ez eze, dantzariak eta luntxa izango dira biharamunean.

Abadiñon, Kriskitin dantza taldeak Akelarrea antzeztuko dau, gaueko 22:30ean, Gerediagako Salbadore ermitaren inguruan, Hamabi Harri auzo elkaratek antolatuta. Muntzaratzen TSTZ elkaratek eratu dau San Joan sua, jolasak, askaria eta txokolatea.



Suak piztuko ditue Durangaldean be San Joan bezperan.

Kriskitinek akelarrea antzeztuko dau Gerediagako Salbadore ermita inguruan

Axpen (Atxondo) su artifizialekin isiotuko dabe sua ilunkeran eta txokolatea be banatuko dabe bertaratzen direnen artean. Biharamunean, meza eta nagusienako luntxa be izango dira. ■ A.B.

GARAI

Sanjoan jaietan murgilduko dira herritarrak datorren astean

Martitzenean, ekainaren 23an, emongo deusie hasiera Sanjoanetako ospakizunari Garain. Egun seinatuak astean zehar izan arren, hurrengo asteburuan be jarraipena izango dau jai-giroak, lehiaketa eta kultur ekitaldiekin. Trumoitte Jai Batzordeak antolatu ditu Sanjoan inguruko ekitaldiok.

Martitzenean, bezperan, altxatuko dabe donien-atxa, iluntzeko 20:30ean. Jaiei hasiera emongo jake, horrenbestez, ofizialki. San Joan egunean meza izango da 12:00etan. Ondoren, berreskuratu barri daben Erdi Aroko hilerriaren aurkezpena egingo dabe.

Jaiari segida emanez, hilaren 27an ipuin kontalari saioa izango dabe arratsaldean eta afariagero. Domekarako dantzariak, igel txapelketa eta asto-probak prestatu ditue. ■ M.O.

Martitzenean, San Joan bezperan, altxatuko dabe donien-atxa, iluntzeko 20:30ean, txapligo artean

ELORRIO



Artisautzaren gaineko zortzi stand ipiniko ditue.

Antzinako ogibideen erakusketa ikusgai bihar San Agustinen

Zaldi gainean ibiltzeko aukera be eskainiko dabe

Etxebarriako San Agustinen Aintzinako Ogibideen IV. Erakusketa antolatuko dabe bihar, 11:00etan hasi eta egun osoan zehar. Olazar auzo elkaratearen ekimenari esker, besteak beste, antzinako okinek edo buztinlariak zelan lan egiten eben ikusteko aukera egongo da. Horrez gainera, antzerkia eta umeendako jolasak be prestatu ditue.

12:00etatik 13:00etara, sasoi bateko ardi ile-moztaileek, gaztagileek eta harri-zulataileek zelan jarduten eben erakutsiko dabe arlo horreetako adituek.

Arratsaldeko 16:30ean artisaunen erakusketa hasiko da; zortzi stand beste hainbeste ogibideen erakusleho bihurtuko dira: errementaria, hargina, zorroztaile, gorularia, buztinlaria eta okina, esaterako. Txerri bat be erreko dabe, eta pintxoak salgai ipiniko ditue.

Zaldi dotoreak be ekarriko ditue, eta horreen gainean ibiltzeko aukera eskainiko dabe. Tailerretan gaztetxoek kolore eta diseinu askotako papera egiten eta antzinako eskriben moduan lumagaz idazten ikasiko dabe.

Azkenik, 18:30ean ehiza-hegaztien erakusketa (zetreria) hasiko da. Belatza, arranoa eta mozoloa lakoen hegaldiak ikusteko aukera be eskainiko dabe. ■ J.D.

18:30etik aurrera mozoloen, arranoen edo belatzen hegaldiak ikusi ahalko dira

2003. urtean antolatu eben lehenengoz, eta harrezkero bi urterik behin eratzen dabe

Olio batzeko lau gune finko ipiniko ditue uztailetik aurrera

Olio batzeko eta birziklatzeko zerbitzua hobetzeko asmoz, Udalak lau gune finko ipiniko ditu. Orain arte, asteko egun jakinetan bakarrik birziklatu zeitekeen etxeetan batutako olio. Uztailean ipiniko ditueen gune finkoekin, herritarrek gura dabenean hutsitu ahalko dabe olio potoa. Oraindino ez dabe erabaki guneak non ipiniko ditueen.

Lau guneetako bat ezinduen-dako egokituko dabela dinoe udal arduradunek

Zerbitzua enpresa berak kudeatuko dau: Rafrinor-ek, hain zuzen be. Udal arduradunen esanetan, "zerbitzu hobea eskaintzeaz gainera, merkeagoa be izango da". Aurreratu dabenez, lau guneetako bat ezinduen-dako egokituko dabe.

Mankomunitatea zerbitzu bera zelan eskaini aztertzen dabil, baina Udalak asmoa ez atzeratzea erabaki dau. ■ J.D.



DURANGO

Disuasino aparkalekuak eta ospitalea, eskari nagusien artean

Durangoko hainbat elkartek apirilean egindako eritzi azterketaren emaitzak emon ditue jakitera

Bizikleta-bidea, trenbidearen etorkizuneko erabilera eta Durangoren etorkizuna: hiru mutzo nagusiotan banatuta, eritzi zundaketa egin dau uriko hainbat elkartek. Horren baitan jaso dabenez, autopistaren doako-bidesaria, disuasino-aparkalekuak eta eskualderako eguneko ospitalea dira etorkizunari begirako herri-tarren eskari nagusiak; baita bisitariak erakartzeko asteburuetan ekitaldiak antolatzea eta urigune-tik telefonía antenak kentzea be.

Durango-Elorrio bibidertutako errepideak, TAOa zabaltzeak eta uriko ingurubide eraztuna ixteak daukie babes txikiena

Etorkizunari begira, trenbidea oinezko zein bizikletendako egokitzeari deritzoe egokiena galdetutako gehienek

Aldiz, Durango eta Elorrio arteko bibidertutako errepideak, TAOa zabaltzeak eta Durangoko ingurubide eraztuna amaitzeak daukie babesik txikiena, Durangoko Alde Zaharra (DAZ), Muruetarra Torre, Juan Itziarko zein San Fausto Berria auzo elkarrekin eta Durango Bai zerbitzu elkarrekin egindako zundaketaren arabera. Apirilean egin zitueen galderak kalean—bostadin tartetan—, merkataria, ostalari eta autonomoen artean ez eze. Balorazioa “positiboa” dela dinoe, “kaleko eritziak jakiteko bidea emonez”.

Bizikleta-bidea
Bizikleta-bideaz galdetuta, %39k agertu dau erabiltzaile izateko asmoa; %42k, aldiz, ez dauela erabiliko aurreratu dau. Kendu diren aparkalekuak “arazo garrantzitsutzat” jo ditu %46k —“oso garrantzitsutzat” %44k—, eta txirrindulariei bide hori bakarrik erabiltzeko aukera emotearen kontra dira galdetutakoen %40; aldekoak %19.



Bizikleta-bidea erabiltzeko asmoa ei dauka %39k. A.B.

Dena dela, aitatzekoa da %41ek ez dauela erantzuten jakin.

Trenbideketorkizunean izan leiken erabileraren haritik, oinezko eta bizikletendako egokitzea jo dabe egoki galdetutako gehienek; Santa Apolonia (Iurreta) Traña-

Matienaraino (Abadiño) oinezkoendako “ibilbide zabala” atontzearen aldekoak dira. Kalean eritzi nagusia ei da “lanagaitik edo aisialdi lez, oinez edo bizikletan, beste herri batzuetara joateko ibilbide handi bat falta” dela. ■ A.B.

Ekainaren 26 eta 27an zeharkatuko dau Durangaldea Txirringaz-ek

Zaldibartik abiatuko da Txirringaz, euskal presoek elkartasuna adierazteko bizikleta martxa, ekainaren 26an 19:00etan. Berritik igarota Elorriora helduko da iluntzean, Etxerat-ek deitutako hileko azken barikuko elkarretaratzera. Elorriotik 11:30ean irtengo dabe 27an, eta Atxondo eta Abadiñon zehar, Durangora 18:00etan heldzea aurreikusi dabe. Durangon, 19:30ean antolatutako manifestazioan parte hartuko dabe, eta elkartasun bertso afarian, 21:00etan.

Orain arteko konpromisoa berretsi gura dau Durangaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak 8. aldia daukan Txirringaz martxagaz: “Euskal Herriak bizi dauen gatazka konpontze aldera, euskal presoek elkartasuna erakustea eta kolektiboaren kontrako eskubide urraketa sala-

“Salbuespen egoera” eta euskal presoek eskubideen urraketa salatuko ditue

tzea”. Parte hartzera deitu dabe. “Salbuespen egoera” eta eskubide urraketa salatu dabe: “Presoek elkartasuna deusezteko helburua agerikoa da. Azken pausoa, presoek argazkiak desagertzeko emondako agindua”. Azken 30 urteotako euskal preso gehien dagoz: 783. ■ A.B.

Huntingtonaren sindrome psikiatrikoak berbagai

Huntington Norte elkarrekin berbaldia eratu dau

Huntington gatzaren inguruko alde psikiatrikoak hartuko ditu berbagai, bihar, 10:00etan, Galda-kaoko ospitaleko psikiatra Angel Padierna Acerok. Akats genetiko neurologiko batek eragindako gaixotasuna dogu Huntingtona. Heriotza dakarren endekapenez-

Sindrome psikiatrikoak, tratamenduak eta gaixoan zein familiagan daukan eraginaz jardungo dau Angel Padiernak

ko gaixotasuna da, eta herentzia-koa: oinordekoek hartzeko aukera %50ekoa da. Sindrome psikiatrikoak, horretarako tratamenduak eta gaixoan zein bere familiagan Huntingtonak daukan eragina hartuko ditu aztergai Padiernak.

Huntington Norte Elkarrekin eratuta elkartuko dira gatz hori daukien familiak Durangon, Landakon. EAEn 50 lagun inguru dagoz elkartean, eta 10 urte dira bai hartu-emon mantentzeko bai gaixotasunaren gaineko azken ikerketen barri izateko elkartzen direla. ■ A.B.

Uriko mugarriak ezagutzeko mendi ibilaldia zapatuan

Alpino Tabira mendizale taldeak Mugarri Eguna antolatu dau zapaturako, Udalak lagunduta

Durango inguruko herriekin dituen mugarriak ezagutarazteko guran sortu zen Mugarri Egunak hamarkada bete dau aurretan. Alpino Tabira mendizale taldearen ekimenez –Udalak lagunduta– sortutako mendi ibilaldiak dau hutsik egin aurretan be, eta Durangok Zornotza, Dima, Mañaria eta Izurtzagaz batera dituen 21 mugarriak ezagutzeko gonbita luzatu dabe. Ekainaren 20an, zapatuan, jarri dabe ordua: 08:00etan, Andra Mariko elizpean. Lehenengo mugarrira hurreratzeko San Andres, Santa Luzia eta marmol harrobian zehar abiatuko dira mendizaleak.

Bost orduko ibilaldia
Bost orduko mendi ibilaldia antolatu dabe, jakin eragin dabenez, Axmoki, Arantza, Gibela, Basobaltz eta Iturriondon zehar.

Dena dela, mokadua hartzeko denpora be hartuko dabe. Gogoraz dabe komenigarria dela bota egokiak eta ura eroatea.

Mugarri Egunean parte hartu gura dabenek gaur daukie ize-na emoteko azken eguna. Gazte Informaziorako Bulegora hurreratu leiteke, 94 603 00 30 telefono zenbakira deitu edo honako helbide elektroniko hau erabili: informazioa@durango-udala.net. ■ A.B.

Gaur, ekainaren 19a da Mugarri Egunerako izena emoteko azken eguna

Andra Maritik irtengo dabe, 08:00etan, mugarrietan zehar bost orduko ibilbidea egiteko



K. Aginako

Elkarrizketaren aldeko Ahotsak jesarrialdia

Elkarrizketa politikoaren aldeko jesarrialdian Durangaldeko 60 emakume inguru batu ziren joan zen zapatuan. Durangoko Ahotsak taldeak deitutako ekimenagaz bat egin eben guztiek, Andra Mariko elizpean. Eskualdeko 200 andraren argazkiekin osatutako murala be jarri eban Ahotsak, hori be elkarrizketaren alde. Jesarrialdia “oso ondo” joan zela jakin eragin dabe, eta “aurrera egiteko gogotsu” jarraitzen dabela.

ABADIÑO

Erdi Aroko Azoka eta haur parkea asteburuan Matienan

Enduquad taldeak antolatu dauen Nazinoarteko Quad Open-aren harira hainbat ikuskizun eta ekintza izango dira zapatu eta domekan Matienan

Nazinoarteko quad gidarien txapelketa hartuko dau asteburuan Traña-Matienan. Txapelketaren harira, eta Udaren 16.000 euroko laguntzagaz, "familia guztiarendako aproposak diren" hainbat ekintza antolatu ditue astebururako, Marisa Vazquez zinegotziak azaldu dauenez.

Lau gurgpileko quad motorren inguruko ikuskizuna gazteei zuzenduta ei dago, batez be, eta asteburuko eskaintza familia guztiarentzako modukoa egin gura izan dau antolakuntzan jardun dauen Enduquad elkarteak.

Udalak 16.000 euroko diru-laguntzagaz kolaboratu dau asteburuko ekitaldiak antolatu dituen elkarteagaz

Traña-Matienako eskola inguruan ipiniko ditue Erdi Aroko lanbide, artisautza eta elikagaien erakus-mahaiak

Haur zein helduendako, egun-pasarako apropos izan leitekezen Erdi Aroko Azoka eta haurrendako parkea izango dira zapatu eta domeka goiz eta arratsaldean. Matienako eskolen inguruan ipiniko ditue postuak, eta Galizia plazan izango da haurren gunea.

Artisautza produktuak zein elikagaiak erosteko aukera izango da azokan, eta salgaiak zelan egiten diren ikusteko aukera be izango da erakustaldietan. Ogia, gozoak, zura, metala eta larrua landuko ditue, besteak beste, asteburuko Erdi Aroko Azokan. ■ I.E.

Sexualitatea bizitzeko era desbardinak aldarrikatuz

Ekainaren 28a; lesbiana, gay, bisexual eta transexualen eskubideen nazinoarteko eguna


Herritarrek sexualitatea bizitzeko modu desbardinaren inguruan jabetzeko helburuz, ekitaldi bi antolatu ditue datozen egunetarako Emakume eta Berdintasun Arloak. Ekainaren 28a da eta Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Eskubideen Nazioarteko Eguna.

Ekainaren 28ko aldarrikapenekin bat egiteko, 25ean 18:00etan izango den emakumezkoen sexualitateari buruzko tailerra antolatu dabe Errotan: *Sexualitatea lehenengo pertsonangoiburua* daroa tailerrak, eta parte-hartzaile kopurua mugatu daben arren, egun berera arte emon ahalko da izena. Emakumeen

desira eta fantasien aniztasuna naturaltasunez lantzea da Miriam Herbon eta Inma Merinok gidatuko daben tailerraren helburua.

Bestalde, EHGM elkarteak itzita, *Gay, lesbiana, bisexual eta transexualak atzo eta gaurizene*ko erakusketa izango da ekainaren 22tik 30a arte kultur etxean. Astelehenean 19:00etan izango da Errotan inaugurazioa. ■ I.E.

Emakumeak sexualitatea bizitzeko modu ugariei buruz naturaltasunez berba egitea dau tailerrak jomuga



Egunpasa egin eben askok zapatuan Urkiolan. Iban Gorriti

Adin guztietako bisitariak hartu zituen zapatuan Urkiolako harriak

Eguraldia lagun izaneben, joan zen zapatu sargorian, Urkiolarako bidea hartu eben inguruko herrietako biztanle zein Bizkaiko beste hainbat herritako bisitariak.

Adin guztietako herritarrek batu ziren Urkiolako Santutegiko harriaren bueltan aurten be. Ekainaren 13a, San Antonio Eguna izan zen joan zapatuan, egun osoan zehar Urkiolako Santutegian inguruan ospatu ebena.

Tradizioak agintzen dauenez, santutegiko harriaren bueltan San Antoniori bikotekidea eskatzeko ez eze, egunpasarako be hurreratu ziren asko: goizeko mezak, nekazal eta artisautza produktuen azoka, trikitilariak eta Peñagarikano eta Azpillaga bertsolariak zitueen gozagai. ■ I.E.

ZALDIBAR

Emakume eta gizonen arteko bardintasun plana

Lehenengo Aukera Berdintasun Plana gidatuko dau datozen lau urtean Murgibe aholkularitzak

Berdintasun zerbitzua martxan jartzeko laguntza teknikoa jasoko dau aurrerantzean Udalak, eta zeregin hori burutuko dauen enpresa hautatua dau dagoeneko. Zerbitzua martxan ipini eta Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Plana garatzea izango dau enpresak eginkizun nagusi.

Helburu nagusi Aukera Berdintasun Plana garatzea dauen prozesuaren oinarria parte-hartzea izango da

Udalak deitutako lehiaketara aurkeztu diren hiru aholkularitza-etxeen artean, Murgibe S.L enpresa hautatu dabe zerbitzua eskaini daian. Datozen hilebetetan aholkularitza-etxe horrexek gidatuko dau I. Aukera Berdintasun Plana gidatzeko ardura.

Horrela, 2009-2012 lehenengo berdintasun plana osatzea azken helburu dauen prozesuaren oinarria izango den herritarren parte-hartzea sustatzeko pausuak emongo ditue abiatzeko. Urte hau amaitzerako berdintasun zerbitzua martxan izatea da aurreikusi dabena. ■ I.E.

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu

Iurretza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - 48240 BERRIZ

JUAN BERRISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

pasquali

HONDA

STIHL

SAME

CARON

VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03

**GAURSAk 2000E Plana
handitzen du**

1.000 € -KO

**DESKONTUA*
AUKERAKO EDOZEIN
IBILGAILU EROSTEAN**

10 urte baino gehiagoko kotxea uztean

*Gaursak, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoaren araudiaren arabera, 2000E Planaren baliokide den deskontua aplikatuko diete bertan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten kotxeel. Baliozko eskaintza 09/06/30a arte egindako erosketetan; aplikagarria partikular, autonomo eta ETE-entzat. Balerazina beste eskaintza edo sustapenekin.

**RENAULT
OCASIÓN**

**ZUK DENA NAHI DUZULAKO
GAURSA AUTOAK**
ARRIANDI, 12. IURRETA. TELF. 94 620 33 00



DIURRETA

Igogailua ipintzeko eskaerak erantzun ahalko ditue laster

Igogailuak jartzeko ez eze, fatxada eta estalkiak zaharbarritzeko laguntzak be arautu ditue

Laster izango da indarrean egoitzako eraikinetan igogailuak ipintzeko baldintzak arautzen dituen ordenantza; baita igogailuak jartzeko ez eze, bizitoki kolektiboko erabilerako eraikinetan fatxadak eta estalkiak zaharbarritzeko diru-laguntzak batzen dituen udal-ordenantza be. Biak ala biak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ditue, eta jagoken epea amaituta, iurretarren eskura izango dira. Alegazinarik ez da egon, eta behin betiko onartu ditu udalbatzarrak araudi biak.

Irisgarritasuna ahalbideratu gura deutsee eraikin zaharretan bizi direlako kalera heltzeko baldintza egokirik ez daukien edo zailtasunak ditueen herritarrei, igogailuak jartzeko baldintzak arautuz. Udalak jaso izan dau hainbat eskaera –Dantzari eta Zubiaurre inguruan, adibidez–, eta orain erantzuna emoteko moduan izango dira.

Bideratuko diren laguntzak azpimarratu ditu Iñaki Totorikaguena alkateak. Udal aurrekontuan 50.000 euro gorde ditue bizilagun komunitateari –edo eraikinaren ugazaba bakarrari– bideratutako laguntza horreetarako, eta aurkezten den aurrekontuaren %20rainoko laguntza jaso ahal izango da; gehienez 10.000 euro. Jaurlaritzak Etxebideren bitartez emondako laguntza be gogoratu dau alkateak –Udalarengaz bateragarria–, eta Udalak Ordenantza Fiskaletan jasotako hobariak be bai: “Ez gagoz egoe-rarik onenean, baina laguntza eskatzeko aukera hor dago”. ■ A.B.

Igogailuak ipintzeko araudia onartu dau behin betiko udalbatzarrak; baita hainbat laguntza batzen dituen be

DIAMAÑARIA

Kantera Bako Eguna antolatu dabe zapaturako

Gazte Asanbladaren ekimenez sortutako eguna da bihar aldarrikapena eta jaia uztartuko dituen

Ekainaren 20an, bihar, goizeko 09:00etan egin dabe Mañariako gazte asanbladak antolatu dauen Kanterarik Bako Eguna hasteko mendi martxarako hitzordua.

Menditik bueltan datozeneko, bazkaltzeko mahaiaren bueltan batu aurretik, ekitaldia izango dabe; txalapartariak eta dantzariak bilduko ditue emanaldian.

Horren ondoren, 14:30erako egin dabe elkarrekin bazkaltzeko hitzordua, eta antzerki emanaldia izango da bazkalostean.

Bazkalosteko giro horretan mahaigaineratuko ditue gazteek elkarriketa eta eztabaidarako gaiak. Egun osorako egitaraua da Kantera Bako Egunak dakarrena, eta 19:00etan kalejira eta 21:00etan kontzertuak izango ditue hurre-ratzen direnek aukeran. ■ I.E.

Goizean goiz hasiko den jai-egitaraua antolatu dabe gazteek kontzertuekin amaituko den egunerako



Aparkaleku handiak ibilgailuak abandonatzeko leku egokiak izan ohi dira. A.B.

Udalak bertan behera itzitako 40 auto erretiratu ditu lau urtean

Denera, ibilgailua erretiratzeko 82 espediente abiatu ditue 2006tik hona

Udala herrian abandonatuta itzitako ibilgailuak erretiratzeko hasi zela badira lau urte, eta denpora horretan 40 ibilgailu erretiratu ditue. Gruak eroan eta desmuntatu egin ditue. Halan be, denera, 82 espediente dira Udalak abiatu ditueenak: beste 42 espedienteetatik bik jarraitzen dabe oraindino tramitean. Gainerako 40ak ugazabek eurek erretiratu ditue, halan eskatu ondoren.

Erdiak Maspe kaleko aparkalekuan itzi izan ditue, udal arduradunen berbetan; beste 20 bat industriaguneetan. Izan dira, baina, Tellitun, kaleetan, A-8 autopistarako sarreran edo nekazaritza guneeetan itzitakoak. Urtez urte jaitsi egin da abandonatutako ibilgailu kopurua. 2006an 33 espediente hasi zitueen; 16 erretiratu zituen Udalak eta 17 jabeek eurek.

2007an espedienteak abiatutako 13 ibilgailu kendu zituen Udalak, eta 15 jabeek. Igaz, Udalak

Maspe kaleko aparkalekuan agertu dira erdiak; beste 20 bat industriaguneetan

2006an 33 espediente abiatu zitueen, 2007an 28, eta 17 igaz. Tramitean dagoz 2009an hasi ditueen lauretatik bi

eroandakoak 10 izan ziren —zazpi jabeek—, eta aurren, oraingoz, hasitako lau espedienteetatik bik tramitean darraie. Bana eroan ditue Udalak eta jabeak berak.

Hile bi

Hile bi inguruan leku berean mogitu barik ikusita emoten da abandonatutako ibilgailu bat, eta jago-kon prozesua jartzen da martxan: “Halan be, egia da askotan bista-koa izaten dela ibilgailua abandonatuta dagoela; bere egoeragaitik, batez be”, azaldu dau Iñaki Totorikaguena alkateak. ■ A.B.

IKASTEKO TEKNIKAK IKASTARO BERRIA

Irakurmena • ulemena • motibazioa • plangintza • azterketak

www.psicologo.biz

Jon Arruabarrena – Psikologoa
Francisco Ibarra, 6 (Durango)

946 033 246
629 245 728

GALDERA:
Non jokatu da domekan Anboto
Kilometro Bertikala?

Izena: _____
Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako
afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo astekaria@anboto.org
helbideetara, Hilarren azken alean agertuko da irabazlea.



M
Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola-Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

OTXANDIO

Jolas Eguna antolatuko dabe ikasturtearen amaieragaz batera

Jolas tradizionalak berreskuratuz, euskara bultzatzea dabe helburu nagusi

Mainondo guraso elkarteak eta Udaleko euskara batzordeak Jolas Eguna antolatuko dabe, datorren maiatzaren 23rako. Ekimenaren helburu nagusia hainbat belaunalditako herritarrek jolasen atxakian batu eta euskararen erabilera bultzatzea da. Parte-hartzaileak arratsaldeko 18:00etan elkartuko dira

Datorren martitzenean, arratsaldeko 18:00etan, herriko plazan jolas tradizionalak ezagutzeko aukera

plazan. Martitzenean, musika eta jan-edana be ez da faltako.

Guraso elkarteak aspadi zeukan jolas tradizionalak berreskuratzeako asmoa. Sasoi bateko jolasak galtzen zebilzela ikusita, tradizio horreek ezagutzera emotea erabaki eben. Ikastaroa antolatu dabe lehenago, eta orain bildutakoa plazara aterako dabe. ■ J.G.



Guraso elkarteak maiatzaren eta ekainaren jolas tradizionalen inguruko ikastaroa antolatu dau.

Vulcano Egunaren arrakasta ikusita, datorren urtean be antolatuko dabe

Vulcano taldeak antolatutako ekimenetan jente askok parte hartu eban, joan zen asteburuan. Lehenengo Vulcano, Lemoa, Areatza eta Dimako futbol taldeen arteko txapelketa jokatu zen; seitek bederatzi urterakoen artean. Frontoian antolatutako bazkaria 230 lagun batu ziren gero. Vulcanoko ordezkarien esanetan, datorren urtean be Vulcano Eguna antolatzeko asmoa daukie.



MALLABIA

Jaiak ospatuko ditue asteburuan Gereaa auzoan

Ekainaren 16an emon eutseen hasiera gerearrek auzoko jaiak, mezagaz eta txopo-jasotzeagaz. Datorren astebururako be ekitaldi sorta antolatu dabe. Bihar, ekainaren 20an, 17:00etan txokolatada izango da auzoko haurrentzat. Briska txapelketari, barriz, arratsaldeko 19:30ean ekingo deutsie.

Domekan, 11:00etan, meza izango da, eta 12:00etan aizkoran, harrijasotzen, trontzan eta arineketan jardungo dabe Mallegoi – Zelai eta Aitor Elordi – eta Zelai III gaztetxoek. 12:30ean Miren eta Idoiaren harri-jasotze erakustaldia eta umeen jolasak egingo ditue. Bittorio Zelaia, Goizeder, Artabeitti eta Malora asto-probetan arituko dira. Jaiaren amaieran jeneroz betetako karretila zotz egingo dabe. ■ P.M.

IURRETA

Gimnasia erakustaldia eskaini dabe adinekoek frontoian



XIII. Gimnasia Erakustaldia antolatu dau, asteen, Durango-ko Merinaldearen Amankomunazgoko Adinekoen Sailak. Atzo izan eben topaketa, Iurretako Olaburu frontoian. Abadiño, Durango, Elorrio, Iurreta, Mañaria, Markina, Zaldibar eta Zornotzako 13 taldek jardun eben, 11:15ean hasita: Abadiñoko kiroldegiko Zelaia eta Traña-Matienako taldeak; Durango-ko Joxemiel Barandiaran eta Tabira egoitzak, eta Izar-gaztea elkarteak; Elorrioko kiroldegia eta egoitza, eta Txintxirri; Mañariko taldea; Markinako San Roke egoitzako Eguneako Zentroa; Iurretako taldea, Zaldibarkoa, eta Zornotzako Orue egoitzako taldea. Erakustaldia eta gero, Goiurrian bazkaldu eben.

Gazte Asanbladakoek "euren bideari eutsiko" deutsiela dinoe

Iurrerako Gazte Asanbladak ekitaldi sorta antolatu dau, gaur, Aita San Migel plazan botatzeko zen azken eraikinetik irteera behartu ondoren, "orain arteko bideari eutsiko" deutsiela gogorazoteko. Horretara, elkarretaratzea deitu dabe, gaur, 19:30ean; Askondo eta herrigunetik plazaraino kalejira egingo dabe, 20:00etan. Afarria be antolatu dabe, plazan, 21:00etan —Gau Argi tabernan dagoz txartelak salgai bost euroan— eta, ondoren, bideo emanaldia ez eze, erromeria be izango dabe. Petite & Konpani taldeak 22:30ean joko dau. Gaztetxeok azaldu dabenez, txosna eta musika be egongo dira.

DURANGO

Ona-ko Karmel Onaindia saridun

Ona Electroerosioneko bazkide-sortzaile eta presidente Karmel Onaindiak jaso dau 'La cita de la Empresa Vasca'-ko bizi oso bategaitiko aurten go saria. Aurrezki Kutxak eta Euskal Irrati Telebistak (EITB) emondako sariotako sari berezia El Igualatorio Médico Quirúrgico-k lortu dau (IMQ). Enpresen berrikuntzaren sailean Progeniak lortu dau saria, eta 'Euskal Manager' saria Norbega enpresako José Miguel Lanzagortak.



AFM

Jasangarritasunari buruz, Granadan

Aitziber Irigoras Durangoko alkateak jasangarritasunari buruzko jardunaldietan parte hartu dau, Granadan (Andaluzia), diputazioak "ingurumenaren egoeraz arduratuta eta etorkizun hobe lortzeko pausoak emoteko" eratutako TEMA y ECEMED egitasmoaren baitan. *Ekintza planak. Ikuspuntua eta proposamenak* mahai-inguruan parte hartu dau, Salobreña (Granada) eta E'Elia (Valentzia) alkateekin, besteak beste. 2002an abiatutako Tokiko Agenda 21 en esperientzia azaldu dau. Orain, 2007-2010 ekintza plana garatzen dihardue.

BERBAZ >

“Formazinoa bultzatu gura dogu, Chorrilloko gazteei irtenbidea emoteko”

Maristak ikastetxearen laguntzagaz Panamako Chorrillo auzoan Lanbide Heziketa zentroa zabalduko dabe



Judith Fernandez

Lía Méndez •

Arrupe proiektuko zuzendaria

■ Panamarra

■ 45 urte

Lía Méndezek erronka handia hartu dau Panama hirian Arrupe proiektuaren arduradun legez. Maristak ikastetxearen laguntasunagaz, Chorrillo auzoan Lanbide Heziketa irakasten hasiko dira. Zentroko zuzendariak auzo horretako errealitatea ondotxo ezagutzen dauen arren, gazteei lan arloan irtenbideak bilatzen laguntzeko prest dago.

Zelan sortu da Maristen eta INADEHren arteko hartu-emona?
Karmelo Gorritxategi abadeak urteak emon ditu Panaman, eta bere bitartez sortu zen hartu-emona. Maristetatik hara bisitan etorri zenean, Julen Elgeta hemengo zuzendaria ezagutu neban. Sasoi haretan gazteekin Panama eskola-tailerrean nenbilen lanean.

Zentroko zuzendari izatea ardur handia izango da zuretzat.
Erronka handia da. Auzo gatxa eta arriskutsua den arren, gazteei bizimodua aldatzeko aukera eskaintzen jakela deritzot.

Chorrillo historia handiko auzoa da, ezta?

22.000 bizilagun batzen dituen auzo behartsua da. Hasieran, kolonia sasoian hiriko arrabala zen. Panama hiriko zentro historikotik oso gertu dago. Urbanistikoki gune oso garrantzitsua da, handik gertu intereseko leku ugari dagoz-eta. Kanala eraiki ebenean, langile asko hara joan zen bizitzera. 1989an AEBen inbasioan, bonbardatu egin eben, auzo-

gerrak egiten ditue. Tiroketa ugari izaten da.

Zer helburu daukaz zuen proiektu honek?

Lanbide Heziketa barri bat eskaintzea. Orain arte INADEHk antolatutako formazino ikastaroak oso laburrak izan dira. Gure asmoa hango beharretara moldatuta, hemengo Lanbide Heziketaren eredua eskaintzea da. Espezialitate bakotzeko gaiak lantzeagaz

eskainiko doguz. Materiala bidean da, Euskal Herritik bialduta. Irakasleak kontratatu behar doguz, eta ikasleekin elkarriketak egin. Lehenengo urtean 25 plaza izango dira, eta bigarrenengan beste hainbeste.

Zer etorkizun izan leikie?

Danek ezin dabe unibertsitatera joan, baina horrek ez dau esan gura beste aukera batzuk ezin direnik sortu. Tailer batera ikastera joateak ez deutso inori bizitzarik aldatzen. Gazteei beste irtenbide bat emoteko ikastaro iraunkorrak eskaintzea beharrezkoa da, eta horixe da lortu gura doguna.

Ikastaroa amaituta lana topatzeko aukerarik izango dabe?

Formazinodun beharginen eskaera handia da. Kanala han-

“Panamako kanala zabaldu dabela-eta, langile kualifikatuen eskaria dago. Gazteek lan horreek egin ahal izateko formazino gehiago behar dabe”

ko zentroan Noriegaren koartel zentrala zegoen-eta. Berre-raiki egin eben gero. Delinkuentzia da auzoko arazo nagusia.

Zer egoeratan bizi dira gazteak?
Delinkuentziak gazteei eragiten deutse gehien. Bandetan antolatzen dira lurraldea kontrolatzeko. Ohikoa da bandak lapurretan edo droga kontuetan ibiltzea. Euren artean

batera, beste arlo batzuk jorratzea gura dogu. Aldundiak eta Maristek laguntza handia emon deuskue hemen, eta Panaman INADEHk eta La Ciudad del Saber-ek.

Zelan emongo dozuez lehengo pausuak?

Bigarren Hezkuntzako ikasketako eraikina erabiliko dogu. Hasteko elektrizitate ikasketak

“Gazteak bandetan antolatzen dira. Kaleetan zoazela tiroketak ohikoak izaten dira”

“Maristen Lanbide Heziketa eredua hango egoerara moldatzen ahaleginduko gara”

ditu behar dabela-eta, lan eskaintza handia izango dogu, eta kanpotik datozenak kontratatu beharrean bertakoak kualifikatu gura doguz.

Proiektu garrantzitsua da hori.
Latinoamerikan datorren hamarkadan azpiegitura alde-tik egingo den proiektu garrantzitsuenetakoa izango da, eze-lango dudarik barik. Behar horreetarako langile kualifikatuak beharko dira. Egoera horren aurrean, Gobernuak INADEH erakundea indartu gura izan dau.

Kanalaren zabalkunderako erreferenduma egin zendueen.
Erreferendum horretan herri-tarren %70ek baiezkua emon eutson kanala zabaltzearen proiektuari. ■ J.G.

EKONOMIA[>]

>DURANGALDEA

Barriro “dumping”-a hasi izana salatu dau EHNEk

Gureokelaren jarrerak “baserritar haragi-ekoizleengan” daukaz ondorioak



Inguruko nekazaritza eta abelburu feriek hainbat buru batu ohi ditue. Judit Fernandez

Gureokela taldeak barriro “dumping” praktikak hasi dituela salatu dau EHNEk, “okela ekoizten daben baserritarrengan ondorio latzak eraginez”. Kritikatu dabenez, Gureokelak “harakineilabeldun okela produkzio kosteatatik beherako prezioan dihardu eskaintzen”. Holan, “okela ekoizpenagaz lotutako baserritarrek kobratzen daben prezioa aldapan behera botatzea” lortzen da. Gainera, komertzializazio arazo handienak dagoen urteko sasoi batean gertatu ei da hori. EHNEk galdetu dau zelan den posible Eusko Labelak “bertan ekoiztutako okelaren prestigioa suntsitzen

Administrazioak Prezioen Behatokia martxan jartzeari “preminazko” deritzo EHNEk

‘Dumping’ praktikak kontrolatzeko eskatu dau nekazarien sindikatuak

dauen” holako praktika bat onartu izana.

EHNEren ustez, “beharrezkoa” da Administrazioak Prezioen Behatokia alaitz arinen martxan jartzea. “Produktzioetik salmentara, kate osoan, prezioa zelan sortzen den kontrolatu behar da horregaz”. Era berean, “gehiegizko diru etekinak eta, kasu honetan lez, ‘dumping’ praktikak kontrolatu eta horreen eragileak zigortu behar ditu”. EHNEk Eusko Jaurlaritza eta diputazinoei dei egin deutse praktika “maltzur horreetan” dihardueen enpresei diru publikorik ez emoteko. ■ A.B.

Mobilizazioak hasiko ditue Nafarroa Zentroan

Udalak eskaintako zerbitzua izanik, Nafarroa Zentroko langileek euren soldatak Udaleko lan-taldearenagaz parekatzea aldarrikatzen dabe. Urgatzi enpresak azpikontratututa dihardue bertan 34 langilek, eta ekainaren 25ean elkarretaratzea egingo dabe zentroaren aurrean, 11:30ean. Halaxe azaldu dau ELA sindikatuko Amaia Gonzalezek.

Urgatzi enpresak kontratatutako 34 beharginek dihardue Nafarroa Zentroan

Jubilatuen Egoitza, Nagusien Egoitza eta Adimen Urriko Pertsonendako Egunko Zentroa dagoz Nafarroa Zentroan. Denera, 60 erabiltzaile inguru ditu horrek, eta horreetatik 10 dira Durangaldekoak. Urgatzi enpresak azpikontratutako langileak zuzendaritzagaz eta Udalagaz jarri dira hartu-emonetan. Udalak, baina, ez deutse erantzun, eta enpresak ez dau onartu egingdako proposamena. Udalhitz hitzarmenean jasotako zenbait baldintza parekatzea lortzeko negoziatzina zabaltzea gura dabe langileek: “Prozesu luzea izango da, baina, negoziatzeko prest gagoz. Garbitasuneko langileek be lortu dabe”. ■ A.B.

Elkarretaratzea deitu dabe hilaren 25ean, 11:30ean, zentroaren aurrean

Prozesu “luzea” izango dela aitortu dabe, baina negoziatzeko prest dagoz

■kolaborazinoa



Ainhoa Iturbe
EHNE sindikatua

Abiadura Handiko Tontoak Abiadura Handiko Listoak

Abiadura Handiko Trenaren lizitazioak eta obrak arindu nahi dituztela azaldu dute Gasteizko Gobernu inkilino berriek. Hauek, lehengoak bezala, Euskadiren alde, hain zuzen espainiarrak bezala, hauek ere Euskadiren mesederako eraiki nahi baitute Abiadura Handiko Trena; historian beti gertatu izan den bezala, espainiarrak beti gure etorkizun hobearen aldeko pentsamenduaz lanean.

Baina, hara non, frantziar Estatuko nork eta barne ministroak Lapurdi zauritu behar zuen LGVa –hau da, beraien AHTa– bertan behera uzteko agindu duen. Orain arte eginda dauden trenbideen gaitasunak agortu arte berririk ez egiteko. Beraz, Abiadura Handiko Trena arin batean helduko da Iruneraino, bertan abiadura normalean igaro beharko du Hendaia eta Baiona arteko tartea, eta abiadura handian jarraituko du Frantzia barrena.

Lapurdi zaurituko luken LGVa bertan behera uzteko agindu dute

“Gaizki pentsatu eta asmatuko duzu” dio atsoitzak, eta gaizki pentsatzea noa. Hain zuzen ere, Iparraldean eta Frantzia euskaldunak atxilotzeko ardura duenak, espainiarrek estrategikotzat jotzen duten lotura ez egiteko agindua eman du. Gaizki pentsatzen jarrita, beste batzuetan gertatutakoa gertatuko dela berriz ere uste dut; hau da, Hendaia eta Baiona arteko tarte hori egin egingo dela, baina frantziarrek atxilotu batzuekin ordainduko dute beraien parte eta obrak, diruz, espainiarrek (guk, espainiarren artean) ordainduko dituzte isilik eta buztana hankartearen sartuta. Hogeitamar urte barru hala esango digute, azpiko negoziaketa honetan dabilzanek.

Azken finean jakina da, batzuk Abiadura Handiko Listoak dira, eta beste batzuk Abiadura Handiko Tontoak dira. Eta guk erdian egon behar...



Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Industrias tey

Trataera Termiko Bereziak eta
Consulting - Tekniko Metalurgikoa

ALTZAIRU LASTERREAN

Polg. Ind. ARTIA - 48291 ATXONDO - Bizkaia - Tel.: 94 621 55 90 - Faxa.: 94 620 23 70
E-mail: ind_tey@infonegocio.com - www.infonegocio.com/industriaste

KULTURA[>]



Argazkia: Kepa Aginako

MUSIKA > EMANALDIA

Lortegiko Kontzertuak udaren iragarle

Jatorri askotakoak diren musikariek osatzen duten Damba taldea izan zen, joan zen barikuan, Berrizko Udaletxeko eskaileren goikaldea ohol-tzatat izan zuen lehena. Sustriak Euskal Herria, Venezuela, Espainia eta Kuban dituzten erritmo berriak jo zituzten Berrizen.

Munduko musiketarik, eta tradizioa eta modernitatea uztartetik sortutako rumba, blues eta reggae doinuak lantzen dituzte, saxo, baxu, perkusio, trikiti, kantari biren ahots eta gitarrekin.

Dantzarako eta festarako gonbita egiten duten doinuei, jesarritak eta txaloka erantzun zieten hasieran Berrizko Udaletxeko lorategian batu ziren entzuleek. Azken

kantan, txaloak emateko eskuak ez ezik hankak eta gerriak ere mugitu zituzten lorategian.

Uztailaren 11n Urruñan eta irailean Getxoko Folk jaialdian ditu Dambak hurrengo emanaldiak, eta Berrizen bezala, *Ysi rompo mi camino* aurkeztuko dute.

Hurrengo, UNHE hirukoa

Gaur da Lortegiko Kontzertuen bigarren emanaldia, 2008an Berrizko Kultur Etxea inauguratu zuen UNHE hirukotearen eskutik. Aiartzaguena berri-tarraren tronpeta, pianoa eta bibrifonoak osatzen dute taldea. "Euskal bossanova" deitzen dutena deskubritzeko, edo, kasu bada, errepikatzeko aukera da gaurkoa. ■ I.E.

Josu Aiartzaguena
tronpeta jotzaile
berri-tarraren UNHE
taldearen emanaldia

12 > Emakumeak motibo nagusi

Durango Andragunean daude ekainaren 30a arte Noemi Perez artista gazteak emakumearen inguruan sortutako koadro eta testuak.



13 > 'Berandu baino lehen' liburuz

Kaleratu berri duen liburuari buruz aritu zaigu Joseba Azkarraga abadiñarra asteen. Egungo gizarteari buruzko gogoeta da idatzi duena.

PINTURA> ERAKUSKETA

Koadroak, testuak eta musika erakusketa intimo bat osatzen

Durangon, Pinondoko Andragunean, ipini ditu **Noemi Perezek** koadroak

Judit Fernandez

Durangoko Pinondo etxeko beheko solairuan dagoen Andragunearen sakoneko gela batean dago ikusgai Durangon bizi den Noemi Perez "Mimi" artista gazteak osatutako *Momentuak* pintura erakusketa.

Sartzerakoan, hormetako koadroak ez ezik, kasuan kasurako artistak hautatutako musika sartuko zaio bisitariari barrura: Antonio Vegaren *El sitio de mi recreo* entzungo du, esaterako, atezabaltzean. Koadroetan azaltzen dena indartzen duten musikak aukeratu ditu erakusketarako.

Emakumeak dira beti

Gela txikian, koadro koloretsuak daude eskegita: guztietan emakumeak dira motibo nagusi. Pintoreak berak azaldu digunez, egiten dituen koadro guztietan agertzen dira emakumeak: "koadro bakoitza momentu baten isla, autoerretatu bat bezalakoa delako".

Artistak berak bizitako esperientzia ugariak eraginda sortutakoak dira koadroak, artista gazteak azaldu digunez: koadroetan margotutako egunerokoa.



I.E.

Koadro bakoitza egiterakoan sortutako gogoeta eta sentsazioak idatzita jaso ohi ditu Noemi Perezek, eta Durangoko Andragunean ekaina bukatu arte ikusgai duen erakusketarako, koadro bakoitzaren aldamenean erakusten du idatzitako hori lehenengoz. Espazio nahiko "intimo eta aproposa" ikusi duelako erabaki du koadroen ondoan bakoitza egiterakoan sortutako idatzizko sentsazioak ere ikusleekin konpartitzea.

Arte Ederretako ikasketak bukatu zituenetik, Andragunea

Artistak idatzitako gogoetak daude koadro bakoitzaren aldamenean

"Koadro bakoitza nire bizitzako momentu baten isla da"

GEURE DURANGALDEA



Udal mapa eskasak

Jose Luis Lizundia
Euskaltzaina

Azken bolada honetan euskal udal ugarik dihardue euren herrietako mapak egiten. Ezagutzen doguzen asko txukun eta zehatz argitaratu ditue, jagoken hizkuntza aholkularitza bermatuz. Azkenetarikoak Otxandio, Urduña eta Basauri. Durangaldean, ez bakarrik mapa onak, ikerketa toponimikoak be bideratu eta argitaratu ditue Ermua, Zaldibar eta Elorrioko udalek eta, une honetan, Durangok eta Berrizek aginduta daukiez toponimia ikerketa eta normalizatzeko lanak, gero, besteak beste, beharrezko bermez, mapak argitaratzeko.

Tartean, oraintsu, Garaiko Udalak hogeitaka hutsekin argitaratu dau mapa polit bat. Lehentxoago, Izurtzakoa ikusi genduen, oraindik askoz errakuntza gehiagoz eta, hori, aditzera emon geuntsan alkate andreaki. Iurretakoa be, orain lau-bost urte argitaratua, akatsez josita zegoen. Hirurok, zoritxarrez, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza emonda, baina kalitate bermerik exijitu barik. Abadiño eta Atxondok, guk dakigula, oraintsu ez dabe udal maparik argitaratu, nahiz eta aspaldikoak nahiko eskasak izan. Mallabiko eta Mañarikorik ez dogu ezagutzen.

Badira urteak, ERAZ aldizkarian eskatu geuntsala Amankomunazgoari Merinaldeko mapa ganorazko bat argitaratzeko, euskal filologian edo historian lizentziatu bati prestaketa aginduz eta babestuz, prest ginelarik aholkularitza emoteko. Gaur arte.

Orain pare bat aste aldizkari honetan irakurri genduen: "GARAI. Mendien barri emongo dauen mahaia ipiniko dabe begiratokian". Lehen be egon zela uste dot eta, bertan ageri ziren izen batzuk ez zegoen zuzen jarrita. Euskal Herriko Mendi Federakuntzak, gure mendion katalogo oso ona argitaratua dauka, baita, beste bat, Bizkaiko mendiena be, Foru Aldundiaren babesaz, oraindino zehatzagoa. Poztuko nintzateke udaletxeko norbait "Begiratokiko" izenen kalitateaz kargutuko balitz.

bezalako espazioetan eta tabernetan erakutsi izan du batez ere Noemik bere lana. Uztailetik irailera arte, Collins tabernan izango du erakusketa. Ikasketak bukatuta, diseinu arloan egin izan du lan. Orain pintatzeko denbora gehiago duela azaldu digu.

Une bakoitzean pinturarekin adierazi nahi duenera moldatzen du Perezek koadroaren euskarria: formatu handi zein txikia baliatzen ditu bere sentsazio eta sentipenak margotzeko. Kolorea jartzerakoan, ematen duen kontrastea gogoko duelako, pintura akrilikoa erabiltzen du asko, eta esan digunez, noizean behin baliatzen ditu ikatza edo kolore pastelak.

Martitzen honetan lehenengoz egin du bere lanen erakusketa batean gidari lana, eta Andragunean erakusgai ipini dituen bere *Momentuak* azaldu ditu.

Uztailean Collins tabernan ipiniko duen erakusketa lantzen dabil

"Egiten ditudan koadro guztietan agertzen da zelanbait emakumea"

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia



Dantzaldi Ibiltari Eguna

Ekainaren 20an, larunbata
Durangon, Plateruena Kafe Antzokian & Landakogunean

- 10:00-13:00 DANTZA TAILERRAK
- 10:00 ARRIMATEKOAK
- 11:00 JOTAK
- 12:00 JAUIAK
- 13:00 ERREGELA

ERAKUSTALDIA
• 14:00 SOKADANTZA + BAZKARIA
• 19:00 DANTZALDI ERROMERIA PLATERUENEAN AIKO TALDEAREKIN

10:00etatik aurrera egun osoa.
Ikastaroa + bazkaria 30euro

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net



ekainaren 26tik
uztailaren 26ra

UDA KALEAN
BIZI

San Agustin kultur
gunearen eskutik

San Agustin
KULTUR
GUNEAK
DURANGOKO UDALA



LITERATURA > ELKARRIZKETA

Soziologiaren eta psikologiaren bidegurutzetan, nortzuk garen ulertzeko bidean

‘Berandu baino lehen’ liburua plazaratu dau **Joseba Azkarraga** soziologo eta irakasle abadiñarrak. Gaur egungo gizartearen zein berau osatzen dogun norbanakoen inguruko gogoetak jaso ditu bertan

Noiz idatzitako testuak dira ‘Berandu baino lehen’-ekoak?
Azken lau bat urteotan, gitxi gorabehera. Lanarilapurtutako orduetan idatzi ditut, asteburuetan edo zeozer esateko beharra sentitu izan dodanetan.

Zerk bultzatzen zaitu gai bati heldu eta idaztera?

Estimuluak askotarikoak izan dira. Kapituluetakoa batean, Atxagaren elkarrizketa batean zerbaitek deitu eustan atentzinoa, eta horren inguruan idazteko beharrezana sentitu dot. Beste kasu batean, lagun batek esan eustan antidepresiboak hartzen hasi zela, bere esperientzia kontatu eustan eta, anekdota hori abiapuntu hartuta, depresinoari buruzko gogoeta idatzi neban. Hurrengo batean, Kuban gertatu jakun kontu bati buruz. Beste batean, Bilboko La Vieja auzoan bizi izandako pasarte bati buruz...

“Entzundako edo neuk bizi izandako anekdotak erabili ditut gogoetarako”

Historia beste anekdota.

Bai. Entzundako edo neuk bizi-tako anekdotak erabili ditut bizi dogun gizarteari buruz gogoe-ta egiteko. Argazkilari baten moduan ibili naz: XXI. mende-ko bizitzari erretratuak atera deusadaz eta, argazkiak atara ondoren, argazki bakotxaren esangurari buruz idatzi dot.

Ardura berezia sortzen deusuen gaiak dira?

Bai. Oro har, gizartean ardura berezia sortzen daben gaiak dira: krisi ekologikoa; depresi-noa eta bere kausa sozialak; euskal gatazka; gure garapen eredu produktibista; maitasuna eta gaurko harreman afektiboak; gorputz perfektua edukitzeko daukagun obsesinoa non-dik datorren; pobrezia; euskal subiranismoa; identitate kon-

tsumistak; gaurko arazo psiki-ko barriak; krisi energetikoa eta horren ondorio posibleak... Gai asko aztertzen dira liburuan. Baina, aldi berean, badago bata-sun bat, badago gizartearen gai-neko ikuspegi kritiko bat.


“Gizartean ardura berezia sortzen daben gaiak lantzen ditut liburuan”

Norberarendako be onuragarria da errealitateari begiratu eta gogoeta egitea?

Niri balio deust, eta uste dot edo-norentzat lagungarria izan lei-tekela. Orain ehun urte jaio izan bagina, geure bizitza, geure esperientziak, geure bizipenak, ezberdinak litzatekez. Euskal Herrian barik, munduko beste puntan jaio izan bagina, zere-sanik ez. Garai eta geografia konkretu batek emoten deusku izana: garai jakin baten taupa-dak eta leku baten ezaugarriak gure parte dira. Gure garaia eta lekua ezagutzeak aukera emo-ten deusku geure burua hobe-to ezagutzeko: norbanako modura sortutakoa edo gizar-tearen antolamendu kaskarren ondorioz sortutako sufrimen-dua nondik datorren ikusteko.

Zein da pentsatutakoa idatzi eta liburua egiteko prozesua?

Konplikatur. Erditze luze bat da. Liburu bat argitaratzea luzea da. Puntu perfektionista bat edukiz gero, are gehiago; batzue-tan lagungarria da, baina infer-nu txiki batera eroan ahal zaitu perfektionismoak. Alberdania argitaletxeko liburuei Antton Olariagak egiten deusez azalak, oso lan ederrak gehienetan, eta, euskara zuzentzaileak Euskal-tzaindiaren azken arauak sartu behar ditu. Beraz, ez da baka-rrik norbere lana. Liburu hone-takoa, baina, epiduralagaz egi-niko erditzea izan da: ez da hain luze eta konplikatur izan.



Judith Fernandez

Soziologia eta psikologia.

Nortzuk garen azaltzeko, sozio-logia eta psikologiaren arteko bidegurutzea oso da emankorra. Soziologiak paisaia jartzen dau. Psikologiak, barriz, bidaia pertsonala esplikatzen dau. Bidaia pertsonalakezin dira pai-saia barik ulertu. Eta kontrara, paisaia zelakoa den kontatzeko, kontuan izan behar dozuz nor-banako errealak eta euren espe-rientzia errealak. Paisaia sozial eta historiko bako biografia, zuringo bako arrautza da.

Politika eta esparru pribatua.

Batzuetan, kontu potoloei hel-du deust: globalizazioa, kri-si energetikoa, krisi ekologi-koa... Bestetan, bizitza txikiari: gaurko euskal umeak, gaurko ego indibidualak zer puztuta dagozen, zergaitik kontsumi-tzen dogun horrenbeste... Argazkilariaren antzera, zooma erabili dot: zooma orain zabal-du eta orain estutu egin dot, pai-saia edo pertsonen aurpegiak, zimur eta guzti ateratzeko. Sarri pertsonaren barruari begiratu deusat eta, gero, barru hori esplikatzeke pauso bat atzera emon eta gizarteari atera deu-tsat argazki orokorra.

“Gizarte moduan be, hazkunde ekonomiko etenik bakoak ezin gaitu inora eroan”

“Soziologia eta psikologiaren arteko bidegurutzea oso da emankorra”

“Paisaia sozial eta historiko bako biografia, zuringo bako arrautza da”

Zer da berandu baino lehen aldatu behar geunkena?

Gauza asko, baina hiru aitatu-ko ditut. Bat: gitxiagogaz hobe-to bizi leiteke. Oporretan plane-taren bestaldera joateak edo plasma pantailak ez gaitu zoriontsuago egingo. Jente asko berandu konturatzen da aspek-tu ez materialak izan direla bizi-poz gehien emon deusienak (krisi garaian, kontuan hartu beharrekoa da). Bi: gizarte moduan be, hazkunde ekono-miko etenik bakoak ez gaitu inora eroango. Eroatekotan, zulora eroango gaitu. Hiru: eus-kal suberanimismoakesnatu beha-rra dauka, berandu baino lehen.

Etorkizuna zelan ikusten dozu?

Dilema potoloak daukaguz, bai-na ez gabilz sakoneko arazoei aurre egiten. Gaixo dagoen gizar-teari botikak emoten gabilz, sin-tomak desagertarazteko, baina ez gabiz gaixotasuna osatzeko politikak martxan jartzen. Kez-kaz bizi dot etorkizuna, bai eus-kaldunona, bai munduarena. Baina, ez da kezka desmobili-zatzailea: bizi dogun mundua ulertzea inportantea da, baina berau hobetzeko inplikazino-ra-k balio behar dau kezka. ■ I.E.

ANTZERKIA > JAIALDIA

Eguerdi, arratsalde zein gau, antzerkia kalean dugu lurretan

Askondon, 12:30ean, izango da Ganso Renato; Deabru Beltzak taldearen 'Les Tambours des Feu' ikuskizunak itxiko du jaialdia



Trapu Zaharra gaur

Trapu Zaharra antzerki taldearen urteetako esperientziak emanda-ko ezaugarri guztiak biltzen dituen *El pisito* antzezlanak da ekainaren 19ko lurretako Kalez Kaleko proposamena: jolas asko, parte-hartzea eta harridura eragiten duen lana da gaur 20:00etan Askondon luzatuko digutena.

Javier Barandiaran, Txubio E. de Jauregi eta Santi Ugalde dira 25 urtean kale antzerkia egiten diharduen talde honetako kideak, eta gaur Kalez Kalen izango direnak.

Banandutako gizon bi, bizi duten egoera prekarioak behartuta, kanpinean karabana konpartitzera behartuta aurkituko dira.

Zapaturako apropos

Iurretako Udalak eta Mikel Deuna kultur elkarteak antolatzen duten Kalez Kalen hirugarren edizioa itxiko du, aipatu bezala, *Les Tambours des Feus* ikuskizunak. Baina ekainaren 20an, eguerditik aurrera bada antzerkia, musika eta bestelako ikuskizunak kalean eta doan gozatzeko aukerarik lurretan: bihar, 12:30ean, Askondon izan dena *Ganso Renato* izango da. Amilburun, berriz, Pantharhei izango da, 17:30ean. ■I.E.

Deabru Beltzak taldearen *Les Tambours des Feus* ekainaren 20an izango da lurretako Kalez Kale jaialdiaren baitan ikusgai: Aita San Migel plazan, 22:00etan, da hitzordua.

Kale antzerkia egiten 1996 urtetik diharduen Deabru Beltzak, lau kontinente eta 30 herrialde baino gehiagotan 2.000 emanaldi baino gehiago egin ondoren dator lurretara, Durangaldeko herritarrei euren lana erakustera. Perkusioa, zuzeneko musika, piroteknia eta efektu bereziak dakartzate.

Trapu Zaharra antzerki taldearen 'El pisito' lana ikusgai gaur Askondon

Deabru Beltzak-en 'Les Tambours des Feu' ikuskizuna amaitzeko

MUSIKA > LEHIAKETA

Haizetara lehiaketaren emanaldiak Zornotzan

Belgika, Portugal, Madril, Gasteiz, Galizia, Alemania eta Herbeheretako taldeak arituko dira, asteburu honetan, Zornotzan

Fanfarre, banda eta kaleko musikaren laugarren lehiaketa izango da asteburu honetan Amorebieta-Etxanon. Sei herrialdeetatik datozen bederatzi banda izango dira Zornotzako kaleak eszenatoki izango dituztenak.

Frantziako La Fanfare en Petard eta D'Ixie Et D'Ailleurs, Belgikako Fanfare Du Belgistan, Portugalgo Desbundixie, Madrileko La Brassa Band, Gasteizko Turukutupá, Alemaniako Express Brass Band, Galiziako Festicultores Troupe eta Herbeheretako Brasta taldeak aukeratu dituzte aurtien Zornotzako sariketan lehiatzeko.

Banda gonbidatu moduan, berriz, Irmaos Esferovite portugaldarrak datoz aurtien Haizetarara.

Irabazle hautatzen duten taldeak 10.000 euroko saria jasoko du, eta Natxo de Felipek zuzenduko du epaimahaia. Jaialdiko entzuleen arabera banatuko duten 4.000 euroko saria ere izango da.

Musika tresnen azoka

Bigarren eskuko musika-tresnen salerosketarako azoka eta luthierren erakusketa ere izango da asteburuan Amorebieta-Etxanon: hari-instrumentuak, erdiarokoak, kutxa flamenkoak, txirulak eta abar izango dira ikusgai. Gainera, perkusio eta musikoterapia tailerrek ere izango dira asteburu honetako Haizetara jaialdian. ■I.E.

Bederatzi talde arituko dira Zornotzako IV. Haizetara jaialdian

Bigarren eskuko musika tresnen azoka ere izango da aukeran



ANTZERKIA > EMANALDIA



Kepa Aginako

Hanka eta oinekin, baina imajinazioari hegan egiten utzita sortutako antzerkia

Durangon, ekain amaieran hasi den *Uda Klean Bizi* programa abiatu orduko, San Agustín antzoki barruko azken emanaldia izan zen joan zen domekan. San Agustingo sarreran izan zen aldameneko irudian jaso dugun Verónica Gonzálezen haurrentzako ikuskizun berezia.

Argentinako Buenos Airesen sortua den Verónica Gonzálezek, marionetekin egiten du lan: eskuekin barik, baina, oin eta hankekin mugitzen ditu panpinak Italian lan egiten duen Teatrino di Piedi-ko sortzaileak.

Aurretik antzerkiaren inguruan hainbat lan egindakoa den Gonzálezek, Italian ezagutu zuen titeren bitartez baina oinekin eta gorputzeko beste atal batzuekin istorioak kontatzea ahalbidetzen duen teknika berezia.

Umeentzako oso apropos, baina helduak ere liluratzen moduko ikuskizunarekin eman dituzte bukatutzat Durangoko San Agustingo 2009ko bigarren hiruhilekorako prestatutako emanaldiak. *Uda Klean Bizi* da laster aukeran duguna. ■I.E.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

Launa upategiak: tradizinoa, ilusinoa eta barrikuntza



Nazinoarteko sari ugari jaso dabe aurten Launa upategikoek. Hain ondo baloratua izan den ardao horrek Laguardiako lurraren indarra dauka, baina sentimendua Mañaritik eta Berriztik jatorko. Familiaren ibilbidea eta eraberritzeko gaitasuna elkartzen dira ardaoaren inguruko proiektu honetan.

2005ean proiektu barri eta zabalagoa ipini eben martxan, ardaoaren kalitatea hobetzeko ilusinoz eta lanerako gogoz

Hiru urteko ibilbidea dauka Laguardiako Launa Upategiak. Familiako zazpi belaunaldi ardaoaren munduari lotuta egon ondoren, orain dela 30 urte apustu garrantzitsua egin eben Teodoro Unzalu eta Maria Felisa Gaztelurrutiak: upategia eraikitzea. Arabar Errioxako Eskuernaga herrian izan zen hori. Urteak joan urteak etorri, orain hiru urte beste apustu bat egiteko ordua heldu jakon familiari: upategi barria eraikitzea.

Teodoro eta Maria Felisaren seme-alaba Iker, Unax eta Usuri dira orain upategi barria kudeatzen dabenak. Unzalu Gaztelurrutia neba-arrebek gidatu dabe azken urteotako aldaketa, eta badirudi ez jakela txarto irten. Unaxek azaldu deuskunez, urteak

pasatu ahala “produktua egiteko eta kontsumitzeko modua aldatu egiten da”, eta eurek zitueen beharretarako “zaharkituta” geratu zen Eskuernagako bodega. Hori dela-eta, proiektu barri eta zabalagoa ipini eben martxan, ardaoaren kalitatea hobetzeko ilusinoz eta lanerako gogoz.

Upategia eta mahastiak Kantabriako Mendilerroaren azpian dagoz, itsas mailatik 650 metro-ra, kokapen apart batean. Mendikate hori hesi naturala da: Kantauritik datozen haize heze eta hotzak gordetzen ditu eta mahatsondoaren garapen egokirako beharrezko den hezetasun justua izten dau pasatzen. Iker, anai zaharrena, da upategiko enologoa. Enologia ikasketak burutu zituen Logroñoko Eskola Politek-

nikoan, eta 1995etik dihardu ardaoagaz lanean. Gurasoekin batera hasi zen Eskuernagan; esperientzia hartu eta gero, produktua hobetzeko erronkari heldu eutsan 2005ean.

Aipatzekoa da upategi barrian ikerketa eta garapenerako gunea be badaukiela, ardaoagaz aprobak egin eta etorkizuneko aukerak aztertzeke.

Ardaoaren kultura

Laguardiako eraikina ez da, baina, upategi soila. Ardao sortu eta zaintzeko behar diren tresneria eta instalazioetaz gainera, beste hainbat zerbitzu be eskaintzen ditue bertan. Hain zuzen be, Unaxen arabera, “bertaratzen direnek ardaoaren kultura ezagutzea” da euren helburua, elaborazio prozesua hurretik jarraituz. Horretarako, bisitak, dastaketak eta jatetxea be barneratzen ditu eraikineko eskaintzak.

Bisiten funtzinoa, ardao elaboratzean jarraitzen den prozesuaren sekretuak erakustea da. Familiako kide batek upategiko instalazioetan zehar gidatuta

Upategia eta mahastiak Kantabriako Mendilerroaren azpian dagoz

Bisitak, dastaketak eta jatetxea be barneratzen ditu eraikineko eskaintzak

ardaoa egiteko jarraitzen diren pausu guztiak ulertzen laguntzen dabe: mahatsa upategian jasotzen den unetik hasi, ardoaren elaborazio eta ontzeagaz jarraitu, eta botilaratzeagaz amaituz. “Bisitariek mahatsa eta ardao bertatik bertara ikusi, ikutu eta sentitzea” gura dabe Durangaldeko ardao-gile honeek.

Bisitaldiaren ondoren, ardao dastatzeko aukera emoten dabe, aperitiboak lagunduta. Horrez gainera, dastaketarako aholku batzuk partekatzen dira.

Upategia eta bere sekretuak ezagutu eta gero, bertako jatetxe pribatuan bazkaldu leiteke. Bista ikusgarriak dituen ingurunea-gaz, Arabar Errioxako menu tipikoa gozatzeko aukera dago bertan. Jaki gozo ugari eta, zelan ez, etxeko ardao interesgarrienak mahai gainean. 70 lagunentzako lekua dauka Launa jatetxeak.

Bista ikusgarriak dituen ingurunean, Arabar Errioxako menu tipikoaz gozatzeko aukera dago bertan

Aurten aurkeztu dira lehenengo aldiz lehiaketetara eta, guztira, 11 sari jaso ditue

Saritutako ardaoak

Familiak ardaogintzan egindako bidea oso luzea izan arren, oraingo proiektua barri-barria dela esan leiteke. Urte gitxi pasatu dira Laguardiako eraikina altxatu eta apustu barria egin ebenetik; dena dela, horrek ez ditu kikildu. Aurten, lehenengo aldiz aurkeztu dira lehiaketetara, eta hasiera bikaina izan dabe. Guztira 11 sari jaso ditue: 3 sari Bruselako Munduko Txapelketan, beste 3 Zarcilloko Nazinoartekoan, 2 Monacoko Nazinoartekoan, 2 Vino y Mujer sarietan eta bat Estocolmoko Tempranillos al Mundo sariketan.

Proiektu bizia da Launa, baina tradizioa beti gogoan daukana. Dastatu eta bisitatzeko modukoa. Ilusinoa eta hobetzeko gogoak aurrerantzean be albisteak ekarriko ditu, seguru.

Informazio gehiago:
www.bodegslauna.com



Mahatsondotik botilarainoko prozesua

Elaborazioa

Instalazio barriei esker, teknika tradizionalak azken aurrerapen teknologikoe-kin uztartu leiteke. Altxa-ru herdoilgaitzeko ande- len geometria enbor-erdi koniko itxurakoa da.

Tenperatura-kontrola eta erremontatze-sistema automatikoak daukiez, momentu oro ardaogintza prozesua kontrolpean izate-ko eta mahatsari propietate onenak ateratzeko.

Kriantza

Ardaoak haritz amerika- rrezko eta frantseseko barriketan ontzen dira, eta prozesua botila barruko zahartzeagaz amaitzen da. Ardaoak ontzeko erabiltzen diren barriken batez beste-ko adina bi urtekoa da.

Barrika eta botilategiek lurpeko nabe batean atseden hartzen dabe. Ardaoak ten- peratura eta hezetasun bal- dintza natural onenetan garatzen dira.

Ardao eskaintza ugaria, gustu guztietarako

Launa

- Launa Ondua: Bolumen handikoa
- Launa Plus Ondua: Ahaltsua eta zapoetsua

- Erreserba: Ahaltsua eta freskoa aldi berean
- Teo's: Freskoa eta bizia, gorputz handikoa eta iraunkorra

Oiz

- Beltz Gaztea: Beratze karbonikoz egina eta fruitu ikutu handikoa
- Gorria: Tonu zitrikoak dituen ardao freskagarria



“Gure gurasoek hasi eben lana, eta sariak bide luze baten emaitza dira”



Launa upategiaren enologo eta zuzendari teknikoa da Iker Unzu. Gaztelurrutia. Jasotako sarien gainean egin dogu berba.

Hainbat sari jaso dozue urte honetan, mundu osoko lehiaketatan.

Bai. Aurkeztutako ardao gehienak upategi barrikoak izan dira, eta besteak upategi zaharrean elaboratu arren barrian ondutakoak izan dira. Sari ketetara aurkezteko une egokia zela uste genduen.

Aurten parte hartu dozue lehenengo biderrez sariketetan.

Bai, eta oso pozik hartu doguz sariok. Nazinoarteko adituek osaturiko epai- mahai batek zure ardao baloratzen dau, eta horrek gauzak ondo egiten zabilzela esan gura dau. Urte askota-ko lana dago horren atzean; gure gura- soek hasi eben, eta upategi barrikoa errematea izan da sariak lortzeko.

Zein izan leiteke sari horreetatik garrantzitsuena?

Guztiek daukie euren esangura bere- zia, baina, agian, Bruselakoa izan lei- teke garrantzitsuena. Mundu mailan izen handia daukan lehiaketa da. 54 herrialdetatik etorritako 6.000 ardao- tik gora aurkeztu ziren, eta epai- mahaia jatorri askotako 254 adituk osatu eben. Bruselan urrea eta zilarra

jasotzeak badauka bere garrantzia. Monacon be urrea jaso dogun Errioxako bakarrak izan ginen, eta, gaine- ra, epaile guztiak emakumeak ziren. Bestalde, Madrilgo Zarcillo lehiaketa lehenengoa izan zen guretzat, eta oso oroitzapen ona daukagu.

Zer dauka, bada, zuen ardaoak horren- beste sari jasotzeko?

Besteengandik bereizten dauena daukan fruitu-karga da. Hau da, nahiz eta gehienak ardao onduak izan, 4-5 urtekoak, oraindino be kar- ga hori mantentzen dabe. Batzuek alkohol graduazino esanguratsua izan arren, Teo's-ak adibidez, oso ondo orekatuta dagoz. Zurezko kupelak arrastatu izan dituen ezau- garri aromatiko guztiak oso ondo integratuta dagoz ardoan.

Mimoa behar dau ardaoak?

Bai! Gauza guztiek legez. Ardao materia bizia da, eta eboluzionatu egiten dau. Elaborazio fase guz- tietan baldintza onetan zainduta egon behar dau. Guk, esaterako, haritzeko kupel barrien aldeko apustua egin dogu.

ERITZIA[>]

Gutunak

Kimuak

Ez naiz oroitzen noiz izan zen, ez naiz oroitzen non izan zen, baina oraindik ere mantentzen dut arrautzatik irten ginen egun hartako sentipen pozgarrien irudi lauso bat, maitasun handiz, miresmen handiz bihotzean gordeta.

Garai hartako kimu haiek ez zituen goseak behartu lan egitera, ez zituen pobreak, diru-goseak behartu zama hura lepoan hartzera, garai hartako kimu haiek beharrak behartu zituen etorkizunari ateak zabaltzera, beharrak behartu zituen etorkizunari ilusioa piztera. Horregatik, egin zenutena egiteagatik, egiten ari zaretena egiten irauteagatik, lan zama hura lepo gainean hartzeagatik... hasteko eta behin, eskerrik asko!

Kimu berdeak izaten dira, ordea, bele beltz eta txorima-loen bazkarik gogokoena, eta sarraskijale askoren moko zorrotzak aspaldi eten zuen gure habiarekin lotzen gintuen zilbor hestea.

Are malkarragoa egin zaigu bidea ordutik, kontrako haize ufadek etengabe astintzen gintuztela, hegan ikasi nahian, begiratu gabe, itxaropenez, mendi tontorretik salto egin genuenetik... Eroriz gindoazen... Baina ikasi dugu hegan.

Oroitzapenen usainari jarraituz abiatu ginen, izar gorrien argiari jarraituz abiatu ginen, eta haritz handi baten inguruan hasitako sasi zikin artean aurkitu genuen azkenik, denboran galduta, kimuen habia.

Elkarlanean jaso dugu berriro, izerdiz eta nekez, ilusioz temoso jaso dugu berriro, izerdiz eta nekez, beharrak behartuta jaso dugu berriro, izerdiz eta nekez. Konpondu orduko aurkitu dugu gainera habia, berriz arrautzaz beterik, eta horregatik txalo bero bat eta besarkada bana zuei.

Baina esan beharra dizuet, garai honetako kimu berrioi, ez zaituztela goseak behartu lan egitera, ez zaituztela pobreak, diru-goseak behartu lan egitera, garai honetako kimu berrioi beharrak behartu zaituzte etorkizunari ateak zabaltzera, beharrak behartu zaituzte etorkizunari ilusioa piztera. Horregatik, egin duzuen egiteagatik, egiten ari zaretena egiten irauteagatik, aisialdi talde hau aurrera ateratzegatik, guran konfiantza izan eta udalekuan apuntatzegatik, begirale gisa musutruk aritzeagatik, lan zama hau lepoan hartu eta aurrera jarraitzeagatik... bukatzeko, eskerrik asko eta musu handi bana!

Eñaut Aiertzagüena Bravo, Kimuak aisialdi elkarte

Liberazioak

Pasa den astean, astekari honetan, Talde Mistoko kideek Durangoko Udaleko talde politikoek liberatu bat edukitzeko daukaten aukerarekin demagogia egin zutela deritzogu. Aralarri dagokionez, behintzat, zehaztasun batzuk aintzat hartu behar direla uste dugu.

Aralarrek, udal talde guztiak liberatu bat edukitzearen alde bozkatu zuen. Hasteko, Durangok ia 30.000 biztanle dauzkala kontutan hartu behar dugu. Gainera, arau subsidiarioak eta hirigintza tresna guztiak (plan partzialak, bereziak, egikaritze unitateak) zuzenean onartzeko erantzukizuna du gure Udalak, eta 29.000.000 euroko aurrekontua kudeatzen du. Horretaz gain, ordenantza fiskalak, inmigrazioa, gazteria, berdintasuna, kultura, euskara eta hainbat arlotako politikak diseinatzeko ardura ere badu. Beraz, herritarrek emandako

konfidantzari erantzuteko, nahi izanez gero, behintzat, lan ugari egiteko aukera dago udaletxean.

Aralar, udal honetan ordezkaritza izan duen 6 urteetan, lanean buru belarri ibili da. Adibide bat aipatzearren, azken aurrekontuen eztabaidan, proposamen gehien aurkeztu zuen alderdia izan zen; 27 hain zuzen ere. Gu kritikatu gaituen Talde Mistoko ordea, 3 besterik ez. Zentzu horretan, bizi dugun legealdian, laster plenoan eztabaidatuko den telefonia mugikorren ordenantza Aralarrek aurkeztutako mozio batetik dator. TAOa berraztertzea ere gure alderdiak proposatu zuen, eta baita Erralde hiltegian sartzea ala ez eztabaidatzea. Gai horiek lantzeko eta ekarpenak egiteko arituko gara lanean. Adibide gutxi batzuk baino ez dira, baina adierazgarriak, gure ustez.

Lan hori guztia aurrera eramateak dedikazioa behar du. Ondo legoke bakoitzak duen lanpostuarekin bateragarria izatea. Baina batzuetan, ez da posible. Horregatik, legealdi erdian, 2009ko apirilean, pertsona bat lan horretarako liberatzea erabaki dugu. Dedikazio osoz, lan jardunaldi osoa betetzen du eta horren truke soldata ia erdia kobratzen du. Izan ere, liberazioen erabakia hartu genuenean, beste taldeek proposatutako urteko 57.000 euroko soldata gordina ezartzea gehiegizkoa iruditu zitzaigun. Haatik, nahiz eta dedikazio osoa izan, zinegotziak 31.000 euroko soldata gordina kobratuko du (1.700 euro hilean).

Azkenik esan, liberazioen aurka Talde Mistoko duzuen jarraera errespetatzen dugula. Hori bai, eskertuko genuke batzordeetako eztabaidetan gehiago parte hartuko bazenute. Adibide bat jartzeagatik, Tokiko Inbertsioen Fondoa eztabaidatu zenean (4,5 milioiko inbertsio onuragarriak Durangorako), zuek, Talde Mistoko ordezkariak, batzar batera bakarrik etorri zineten. Are gehiago, Hirigintza Batzordeko azken 10 bileteratik bitara etorri zarete. Beraz, iritziak iritzi, gure aukera ere errespetatu dezazuen eskatzen dizuegu; alegia, herritarrekin hartu genuen konpromisoa ahalik eta ondoen betetzen saiatzea.

Hiritarren ordezkariak garen heinean, Aralarrek Udalean parte-hartze zuzena eta etengabea dauka. Batzordeetako eztabaidak proposamenekin eta iritziekin aberasten ditugu, herritarren onurarako. Hori da guretzat herriaren alde lan egitea, eta aurrekontuetako diru kopuru jakina herriaren alde lan egiten duenarentzat bideratzea ere beharrezkoa dela deritzogu. Gero hiritarrek, lau urtetik behin, esango digute liberaziotan inbertitutako diru kopurua garestia edo merkea iruditzen zaien, egindako lana eta ekarpenak kontutan hartuta.

Dani Maeztu, Aralarreko zinegotzia Durangon

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenaren sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Endika Blanco

Ikusi ezinak ikusezin

Lagun baten proposamenaren harira, egia esan, neuk ere pisu handiko gaiak alderatu eta "kantu leunak nahi nituzke jarri", idazki barreragileak egin, ez baitago niretzat ondokoaren aurrepigan irribarre bat sortzea baino plazer handiagorik.

Baina une eta egoera jakin honetan, jauntxoek eta euren menpeko komunikabideek ikusezin bilakatu nahi duten herritar taldearen bozgorailu izan nahi dut, 1.450 karakteredun bozgorailu xumea.

Arrazoi pertsonalak tarteko, norbanako orok gorroto dugu zerbait edo norbait.

Hala ere, ikusi ezin horri aurre egiteko era oso ezberdina ditugu: norbera alendu, pixkanaka gorroto hori baretzen saiatu, bestea desagerrarazi... Herritar guztion lehen dakariaren izenean hitz egiten duen Francisco Javier Lopezen alderdiak azken bide hori barnebildu du bere estrategia politikoan.

Ikusi ezinak ikusezin bilakatu zituen ehunka herritar iragan Europako hauteskundetan. Ikusi ezinak ikusezin bilakatu du, ziur asko, Jon Antza errefuxiatu eta preso politiko ohia. Ikusi ezinak ikusezin bilakatu nahi ditu 740 euskal preso politikoak, euren argazkiak herrietako gune guztietatik kenduz.

Honekin guztiarekin, Euskal Herriko errealitatea maindire gorri-hori batez estali eta gatazka politikoa islatzen duten zantzu oro desagerraraztea dute jomuga.

Gatazka politikoa ezkutu eta herritar talde handi bat baztertuz, baina, ez da inoiz horrenbeste desio dugun justizian oinarritutako bakerik izango. Orain arte legez, negarra eta samina gailenduko zaizkio irribarreari.



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko ekainaren 19a - 8. urtea - 335 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhua Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

KONFIDANTZA

merkatuan daramatzagun 40 urteetan - frogaturiko gure profesionaltasunean - salmenta ondorengo gure zerbitzuan
bezeroarekiko arretarako gure gunean - Bautista altzari eta dekorazioko pertsonengan
2008ko MERKATARITZA SARI NAZIONALAGATIK



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO
www.bautistamuebles.com



3 m-KO EGONGELAKO ALTZARIA. BESTE HAINBAT OSAKETA ETA AKABATU AUKERAN

egongelako altzariaren prezioa eskura ordainduta:

1.600,00 €

egongelako altzariaren prezioa finantzatuta:

sarrera:

475,00 €

lehenengo ordainketa 200%ko umian:

9 ordainketa:

125,00 €



OHE OSOA ETA BI MAHAITXO BARNE. BESTE HAINBAT OSAKETA, NEURRI ETA AKABATU AUKERAN

logelako altzariaren prezioa eskura ordainduta:

1.036,00 €

logelako altzariaren prezioa finantzatuta:

sarrera:

325,00 €

lehenengo ordainketa 200%ko umian:

9 ordainketa:

79,00 €

Urbitate poligonoa, 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroskiren ondoan) BEZEORENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA: 94 672 77 00

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Ekainaren 19an, 17:30ean

XABI LARREA

'Filamento El Farolero' zirku ikuskizunagaz parte hartuko dau, gaur, Xabi Larreak Iurretako III. Kalez Kale antzerki jardunaldietan. Filamento, (klown eta mimo arteko pertsonaia) farolari umil eta atseginak bere lanagaz lotutako konponduezinei egin beharko deutse aurre. Antzinako farolari haren lana ekarri gura dau gogora ikuskizun mutu honek, jai ukitu komikoa emonda: mimoa, antzerkia, malabareak, akrobazia... batzen ditu.

ANTZERKIA

IURRETA

- » **Iurretako III. Kalez Kale:** 'Filamento El Farolero' (Xabi Larrea), ekainaren 19an, 17:30ean, Dantzarin. 'El Pisito' (Trapuzaharra), 20:00etan, Askondo.



- » **Iurretako III. Kalez Kale:** 'Ganso Renato' (Trapuzaharra), ekainaren 20an, 12:30ean, Askondon. **Panta Rhei antzerki taldea**, 17:30ean. Amilburun. 'Les Tambours De Feu' (Deabru Beltzak), 22:00etan, Aita San Migel plazan.



BERBALDIK

DURANGO

- » **'Lactancia: las preguntas de la madre'**, ekainaren 22an, 18:00etan, Andragunean. Euskadi-ko Esnearen Ligak antolatuta.

ZORNOTZA

- » **'AHTrik ez, eskerrik asko. Las razones del No'** liburuaren aurkezpena (Iñaki Barcena EHuko irakaslea eta Josu Larrinaga soziologoa), ekainaren 25ean, 19:00etan, Zelaieta zentroan.

BESTEAK

BERRIZ

- » **Berriz Bizikletari Elkartek** Frantziako Tourrera irteera antolatu dau: **Montélimar-Mont Ventoux (20. etapa)**. Uztailaren 24 irtengo dira eta 26an itzuli (berrizbizikletarielkartea@gmail.com / 660 712 138).

- » **Hipika**, uztailaren 8an, Dukiena



elkartean (Berriz). DBHko ikasleei zuzenduta. Era berean, **Arabako Sobron Abenturara** irteera, uztailaren 22an, eta, 25ean, **Sopelako hondartzan, surfa, skatea eta snorkela egiteko aukera** (berriztarrentzat 10 euro; gainerakoentzat 20. Hiru irteetarako bonoa, 25 euro eta 55 euro, hurrenez hurren). Izena emoteko azken eguna ekainaren 19a da.

- » **4. Topaketa Interkulturala**, ekainaren 21ean, 11:00etan hasita.

DURANGO

- » **Lariz Torrera bisita gidatua**, ekainaren 20an eta 27an. Turismo Bulegoan izen emon behar da (94 603 39 38).

ERMUA

- » **Rozioaren erromeria**, ekainaren 21ean, 11:00etan hasita, Ongarai plazan. Andaluziako kultur zentroa.

IURRETA

- » **Araba Euskaraz-era joateko autobusa**. Ekainaren 21ean, 09:00etan, Andaparapen. Itzulera, 19:00etan. Txartelak Ibai-Ondon zentroan.

(iurretarrantzat zazpi euroan; gainerakoentzat 12 euroan).

OTXANDIO

- » **Mendi irteera: Candachú-Pico de los Monjes-Peña Oroel (Pirinioak)**, uztailaren 4 eta 5ean. Irteera, 06:00etan, Anton Bentan (nagusiak 25 euro; gazteak eta umeak 10 euro). Afaria, armozua eta bazkaria egiteko aukera. Izen-emotea ekainaren 25a artekoa da.

ZALDIBAR

- » **Gaztelekua (12-16 urte): herri kirolak**, ekainaren 19, 20 eta 21ean, 16:00etatik 20:00etara. Baita ekainaren 24, 25eta 26an. Orioko Txurrukako aterpetxera irteera antolatu dabe. **Zapatublai**, ekainaren 13an, 16:00etatik 19:00etara, herri ikastetxean.

- » **Mendi irteera**, ekainaren 21ean, 08:00ean, Udaletxeko plazan.

ZORNOTZA

- » **'Zex' sexu aholkularitza, eta 'Zuk Zeuk' drogomenpekotasun aholkularitza**, ekainaren 19an, 08:00etatik 22:00etara, Zelaieta zentroan. Ekainaren 20an, **gazte txokoa**, Zelaieta zentroan.

DANTZA

DURANGO

- » **Dantzari Ibiltari Eguna**, ekainaren 20an, 10:00etan hasita, Plateruenean eta Landako erakustazokan: **dantza tailerrak**, 10:00etatik 13:00etara. **Arrimetakoak** 10:00etan, **jotak** 11:00etan eta **jauziak** 12:00etan. **Erregela erakustaldia**, 13:00etan. **Sokadantza eta bazkaria**, 14:00etan, eta, gero, **dantzaldia eta kantaldia**. Iluntzean, 19:00etan, **dantzaldi erromeria**, Plateruenean. Bazkaria eta ikastaroa: 30 euro. (646 336 147 / www.aikotaldea.com).

- » **L'atelier Ballet Gaztea**, ekainaren 20an eta 21ean, 18:30ean, San Agustín kulturunean.



DEIAK

DURANGO

- » **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarrekin deituta.

- » **Mugarri Eguna**, ekainaren 20an, 08:00etan, Andra Mariko elizpean. Izena emoteko azken eguna ekainaren 19a (94 603 00 30 / informazioa@durango-udala.net). Alpino Tabira mendizale taldeak eratutakoa Udalaren laguntzagaz.

IURRETA

- » **Udako tailerren egitasmoa aurkeztuko dabe**, ekainaren 25ean, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- » **'Lesbiana, gay, bisexual eta transexualak atzo eta gaur'**, ekainaren 22tik 30a artean, Errota kultur etxean. Inaugurazinoa, 22an, 19:00etan, EHGA-eko kideekin.

DURANGO

- » **'Hitzaren Itzalak'**. Imanol Larrinagaren margoak eta Juan Ramon Makuso, Aritz Gorrotxategi eta Pello Otxotekoren olerkiak. Ekainaren 28a bitartean, Arte eta Historia Musean.

- » **'Momentuak' (margoak). Noemi Perez**. Ekainaren 30a arte, Andragunean. Egileak gidatutako bisita, hilaren 16an, 17:30ean. Andraguneak eta Aukera Berdintasun Sailak eratuta.



- » **'Parroki orriak. 1942.etik sarera'**. Ekainaren 30a arte, Uribarriko Andra Maria Basilikan, Bateo kaperan: 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

ERMUA

- » **Margoak. Udal Margo Eskola**. Ekainaren 28a bitartean, Lobianon.

ZALDIBAR

- » **Zaldibarko argazki zaharrak**. Ekainaren 20an eta 21ean, Udaletxeko plazan.

IKASTAROK

ABADIÑO

- » **'Sexualitatea lehen pertsonan' emakumeen erotismo eta sexualitatearen inguruko tailerra**. Ekainaren 25ean, 18:00etatik 21:00etara, Errota kultur etxean. Izen-emotea doan (leku mugatua). Aurretik eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

DURANGALDEA

- » **Internet eta informatika**. Urkiola Landa Garapenerako Elkarrekin eratuta, Dinamizatic Rural egitasmoaren eskutik eta Kzguna zerbitzuaren laguntzagaz (688 613 537 / 94 620 36 11).

- » **Udako Euskara Ikastaroak: trinkoak, udako zein familiendako barnetegiak eta Xiberera**. Durangaldeko AEK euskaltegiek eratuta: Durango (94 681 73 49 / abararak@aek.org), Elorrio (94 658 21 11 / abizari@aek.org), Zornotza (zornotza@aek.org / 946 673 43 70/), Berriz, Abadiño eta Zaldibar.

BERRIZ

- » **Berrizburun ikastaro barriak**. Izena emoteko ekainaren 24a arte.

- » **Euskara ikastaroak DBHko 4. mailako ikasleentzat**, uztailaren 6tik 24ra, Anbulategi Zaharrean; astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:30era. Izen-emotea ekainaren 22a arte, AEK (94 681 73 49) edo Udaletxean (94 682 40 36).

DURANGO

- » **'Txinatar bola' tailerra**, ekainaren 25ean, 18:00etatik 21:00etara, Andragunean. Haurtzaindegia dago.

- » **Autoikasketa udan**. Ekainaren 29tik uztailaren 30a arte, eta irailaren 1etik 30a arte; 60 ordu. Udal Euskaltegiak eratuta. Izen-emotea, ekainaren 24a arte (94 603 00 40 / euskaltegia@durango-udala.net).

- » **Euskara ikastaro trinkoak AEK-k eratuta**, 1., 2. eta 3. maila begira, ekainaren 22tik uztailaren 17a arte, (dena, 100 ordu). Izena emoteko AEK-Abarrak euskaltegian.

- » **2009/10 ikasturterako matrikula epea zabalik, Bartolome Ertzilla musika eskolan**, ekainaren 25a arte (94 603 00 35 / bertzilla@durango-udala.net).

ELORRIO

- » **Autodefentsa tailerra**. Ekainaren 20an: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era, Kiroldegian. Irakaslea: Maitena Monroy. Aurrez eskatuz gero, haurtzaindegia izango da. Izena emoteko Udaletxean.

JAIK

ATXONDO

Sanjuanak-Axpe

- » **Jaien hasiera txapligu eta kanpai hotsez**, ekainaren 19an.

ekaineko agenda

Ekainak 13-14 • Iurretako Txirrindulari Elkartea 08:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

Ekainak 13-14 • XXII. Emakumeen Bira 13 zapatua - 10:00etan Iurretako-Goiuria. 3. etapa. 14 domeka - 10:30ean Orduña-Orduña. 4. etapa.

Ekainak 15-17 • Previas Torneo Cáfes Baque 15ean - 19:00etan Kadeteak. / 17ean - 19:00etan Gazteak.

Ekainak 13 • Erakusketa. Iurretako K.E. 11:00-12:30/17:30-20:00


Ekainak 14 • Kirol jardunaldiak ateak zabalik 11:00etatik senderismoa, txirrindularitza, pelota, herri-kirolak, ...

Ekainak 16-17 • Helduen irakurketa kluba 16 - 19:00etan "Mal de piedras" / 17 - 19:00etan "Etorkizuna

Ekainak 18 • XIII. Durangaldeko Nagusien Gimnasia Topaketak 11:00etan Topaketaren irekiera/11:15ean Erakusketa/14:00etan Bazkaria eta dantza Goiurrian

Ekainak 18-19 • III. Kalez Kale 18 eguna - 17:30ean Hotzmuga Tellitun 19 barikua - 17:30ean Xabi Larrea Dantzarin, eta 20:00etan Trapu Zaharra Askondo

IURRETAKO UDALA



Mus txapelketa, 21:00etan eta, ilunkeran, **txopoa jasotzea**. Ondoren, **berakatz zopa** eta **txokolatea**. Jarraian, **triki-festa**.

» **Makailaua pil-pil eran eta tortilla txapelketa**, ekainaren 20an, arratsaldean (aurkezpen ordua, 21:00etan). Ondoren, parte hartu dabenen artean herri-afaria. **Jaialdia**, 22:30ean: **txalapartariak, bertsolariak, Axpeko abesbatza, bideo emonaldia, Atxondoko Andasto dantza taldea...** ondoren, **Luhartz taldeagaz erromeria**.

» **Meza nagusia**, ekainaren 21ean, 11:30ean. Ondoren, **Atxondoko Andasto dantza taldearen ekitaldia**. Jarraian, **txikien pilota partiduak** eta 13:00etan, mus txapelketaren finala. **Zaki Magoa**, 17:00etan, eta, ondoren, **txokolatea**. **Nagusien pilota partiduak**, 19:00etan.



» **San Juan suak**, ekainaren 23an, ilunkeran. Gero, **txokolatada**.

» **Meza nagusia**, ekainaren 24an, 11:30ean. Gero, **Herriko jubilatuetako luntxa**. Ondoren, 12:30ean, **igel txapelketa**; 16:00etan, **briska txapelketa**.

GARAI

Sanjuanak

» **Jaiei hasiera emoteko txopoa altxatzea**, ekainaren 23an, 20:30ean. **Meza**, ekainaren 24an, 11:00etan. Ondoren, **luntxa**.

JARDUNALDIA

ERMUA

» **Gastronomia jardunaldiak**, ekainaren 21a arte, Orbe Kardinala plazan: berbaldiak, dastaketak eta pintxo eta makailau txapelketa, Lobiano gastronomia elkarteak eratuta. Hilaren 20an, X. Azoka Gastronomikoa, 11:00etatik

14:30era. Txistorra pintxoak 1,50 euroan, 19:00etan (edaria barne).

LEHIAKETA

DURANGO

» **44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragartzeko kartel lehiaketa**. Lanak Gerediagako egoitzara helarazo behar dira (Larrasoloeta 3, 48200-Durango). Azken eguna uztailaren 1a. Saria: 1.300 euro.

» **San Fausto jaiak iragartzeko kartel lehiaketa**. Azken eguna irailaren 5a, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) 12:00ak artean. Saria: 1.000 euro.

ELORRIO

» **Ferixa Nausikoak iragartzeko kartel lehiaketa**. Azken eguna ekainaren 30a, 14:00ak artean.

Saria: 500 euro. Informazio gehiagorako Iturri kultur etxera jo leiteke: (94 603 20 32).

IURRETA

» **Aita San Migel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa**. Azken eguna abuztuaren 28a, Udaletxean edo lbarretxe kultur etxean, 14:00ak arte. Saria: 480 euro.

MUSIKA

BERRIZ

» **UNHE (Juanan Aizpurua, Iñigo Peña eta Josu Ayarzaguenak)**, ekainaren 19an, 22:00etan, Markesaren Jauregiko Lorategian.

DURANGO

» **Dj Patt (Txitxarro) + Plateruena Resident DJak: Ruben Kostas, Iker Undersound eta Alain**



Ekainaren 19an, 22:00etan

UNHE HIRUKOTEA, MARKESAREN LORATEGIAN

Jazz doinuz jantzitako proposamena ekarriko dau, gaur, UNHE hirukoteak. Agertoki berezia izango dabe Iñigo Peñak (piano), Juanan Aizpuruak (bibrafonoa) eta Josu Ayarzaguenak (tronpeta), Markesaren Jauregiko lorategian. Euskal Herriko jazz panoraman proposamen orijinala da eurena. Izan be, soinu propioa sortzea lortu dabe, bai jazz zaleen bai oro har musika zaleen gustukoa. Ayarzaguenarentzat berezia izango da herrian eskainiko dauen kontzertu hau. Taldeak ‘Solasaldi’ lana dauka kalean.

Medina, ekainaren 19an, 22:00etan, Plateruenean.

» **Rock Izar eskolaren jaiak**, ekainaren 25ean, 21:00etan, Plateruenean: eskolako ikasleek, irakasleek eta Solo taldeak jardungo dabe.

ERMUA

» **Alboka Eguna. Alboka musika eskolako ikasleak**, ekainaren 19an, 22:00etan, Orbe Kardinala plazan.

IURRETA

» **Musikaren Nazinoarteko Eguna: Umeen tanborrada Durangoko Musika Bandak lagunduta,**



ekainaren 21ean, 12:00etan. Gero, **Durangoko Bandaren eta Elgoibarko Dultzaineroen kontzertua**. Dantzarin, 18:30ean, **Mongo** taldea.

ZORNOTZA

» **‘Haizetara’ kale musikaren nazinoarteko lehiaketa**, ekainaren 19an, 20an eta 21ean: **Brasta (Holanda), Irmaos Esferovite (Portugal), Turukutupá (Araba), La Fanfare en Petard (Frantzia),**



Fanfare du Belgistan (Belgika), Express Brass Band (Alemania) eta D’ixie et D’ Ailleurs (Frantzia) fanfarreek jardungo dabe



herriko kale eta auzoetan zehar. Baita **La Brassa Band (Madrid), Desbundixie (Portugal), Festicultores Troupé (Galizia)** fanfarreek be. Ekainaren 21ean, 13:00etan jakinarazoko ditue irabazleak eta **sari banaketa** egingo dabe.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Corazón de tinta

Zuzendaria:

Iain Softley

barikua 19:

19:00 / 22:00

zapatua 20:

17:00 / 19:30 /

22:30

domeka 21:

17:00 / 19:30 / 22:30

astelehena 22: 19:00 /

22:00

martitzena 23: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 19
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Zapatua, 20
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro / De Diego / Campillo / Unamunzaga / Sagastizabal / San Roma / (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Domeka, 21
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
Astelehena, 22
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Martitzena, 23
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Eguaztena, 24
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Eguena, 25
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

8 **23° BARIKUA**



Goizaldean iparraldeko haizeak hodeiak bultzatuko ditu gurera, eta euri arina itziko dabe. Arratsaldean apurka-apurka jasotzera egingo dau. Temperatura beroenak nekez gaindituko dabe 20 °C-ko muga.

9 **22° ZAPATUA**



Asteburua eguzki ederragaz eta temperatura gozoezin hasiko dogu. Goizean zehar giroa argituz eta eguzkia sabaian nagusituz joango da. Termometroak 21-23 °C-ren inguruan geldituko dira.

12 **24° DOMEKA**



14 **26° ASTELEHENA**



14 **28° MARTITZENA**



AXPE JAIETAN

19 BARIKUA

Jaien hasiera txapligu eta kanpai hotsez

- 21:00etan, mus txapelketaren hasiera
- Txopo jasotzea, iluntzean
- Amaitutakoan berakatz-zopa eta txokolatea denontzat
- Gero TRIKI-FESTA

20 ZAPATUA

• Arratsaldean, makailaua pil-pilean eta tortilla txapelketa.

OHARRA:

Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu.

Sariak gazteentzat eta nagusientzat egongo dira.

Aurkezpen ordua 21:00etan izango da

• **HERRI AFARIA:** Parte hartu dutenek euren lagun taldearekin frontoiak afaldu ahal izango dute. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu.

• 22:30ean JAIALDIA:

Txalapartariak, bertsolariak, Axpeko abesbatza, bideo emanaldia, Atxondoko Andasto dantza taldea, ...

• Ondoren erromeria LUHARTZ taldearekin

2009

21 DOMEKA

- 11:30ean, Meza nagusia. Atxondoko ANDASTO dantza taldearen ekitaldia.
- Ondoren, txikien pelota partiduak
- 13:00etan, mus txapelketaren amaiera
- 17:00etan, ZAKI MAGOA
- Amaitutakoan txokolatea
- 19:00etan, nagusien pelota partiduak

23 MARTITZENA

- Iluntzean 'SAN JUAN SUAK' SU ARTIFIZIALEKIN
- Gero txokolatada eder bat

24 EGUAZTENA

- 11:30etan, Meza nagusia
- Ondoren herriko luntxa
- 12:30ean, Igel txapelketa
- 16:00etan, Briska txapelketa. Hasiera eta amaiera.

LAGUNTZAILEAK: ATXONDOKO UDALA, ATX-AZPI ELKARTEA, ANAIK s.a.l., ARRIANDI sukaldeak



KIROLAK >



Etzi Anboto Kilometro Bertikala jokatu da Arrazolan. Parte-hartzaileek 1.100 metroko desnibel positiboa igo beharko dute 3,2 kilometrotan. Oso igoera gogorra da eta gorputzari mekanika berezia exijitzen dio, tontorrera iritsi nahi bada: besoek hankei laguntzen diete pausu bakoitzean, eta bizkarrak aurrerantz okertuta, alperreko pisua ekidin asmo du. Froga ikusgarria da zaleentzat eta erronka handia parte-hartzaileentzat. Horregatik izan zuen halako arrakasta iaz eta horregatik etorriko dira espezialitateko korrikalari onenak aurtengo bigarren aldira.

Gizonezkoetan hiru bider munduko txapeldun izan den Agustí Roc eta egungo Espainiako txapeldun den Raul García dira izar nagusiak. Badira aipa-

Erronken erregea

tzeko moduko beste izen batzuk ere: Jessed Hernández, Zago Didier, Miguel Caballero eta Javi Olabarria, esaterako. Emakumeetan, Stephanie Jiménez –hirugarrena aurtengo Zegama-Aizkorri lasterketan– eta Oihana Kortazar –Espainiako txapelduna– dira faborito nagusiak. Halan be, ez da guztiz segurua Jiménez etorriko den; gaur jakinaraziko diete. Irteera puntuan egongo dira Nerea Amilibia, Oihana Azkorbeitia eta Alicia Olazabal ere.

Etzi 08:00etatik 09:30era dortsalak, eta kamisetak banatu dituzte. 10:00etan irtengo dira lehenengo korrikalariak, eta sari banaketa 14:00etan izango da.

Anboto Kilometro Bertikala antolatzen duen Brinean elkartearen aurtengo helburetako bat

Agustí Roc hiru bider munduko txapeldun izan denak parte hartuko du

emakumeen parte-hartzea handitzea izan da. Horregatik, Alicia Romeroren eskuetan dagoen errekorra (54:38) apurtzen duenak 300 euroko aparteko saria izango du (600, guztira).

Anbotoko igoerak Euskal Herriko Igoera Bertikalen Zirkuituari hasiera emango dio. Zirkuitua Azpeitiko igoerak uztailaren 26an eta Uharte-Arakilgoak irailaren 20an osatzen dute. ■ J.D.

24 Kurutziagak etxeko lanak egin ditu

Irabazi behar zuen partidua irabazita, Kurutziagak etxeko lanak egin ditu. Orain zain egon beharko du. Talderen batek ez igotzea erabakitzen badu, Kurutziaga igoko da.

25 Finalerdiak Tornosolo trinketean

Abadiñoko Atxartek Trinketeko Euskal Herriko Klubaren arteko finalean jokatu du gazte mailan. Nagusien artean, Oizpek eta Mallabiak jokatu dituzte finalerdiak.

Kantxan bideratu dutena bulegoan konfirmatzeko zain

Kurutziaga lehenengo geratu da bigarren sailkatuen ligaxkan; talderen bat desagertzen bada, Euskal Ligara igoko dira.



Azpeitiaren kontrako partiduan uste baino gutxiago sufritu zuen Kurutziagak. Kepa Aginako

Altamirak mailaz igotzeari eginda-ko ukoak Kurutziagari zirrikitu txiki bat ireki zion, eta orduan urruti ikusten zen ametsa errealtate bihurtzeko zorian dago orain. Igoera ligaxkan lehenengo tokian geratu ondoren, Euskadiko Federazioak Euskal Ligan tokirik badagoen jakinaraziko die aste honetan edo hurrengoan. Seguruenik, talderen bat desagertuko dela aurreratu diete, baina, oraingoz, ezer konfirmatu gabe. Kurutziagako jokalariek itxaropentsu daude, normalean eman izan

direlako tankera horretako mugimenduak.

Altamiraren tokia Santurtzik hartu du –zuzenean igo da–, eta Santurtzirena Kurutziagak. Arabako Ubagarekin eta Gipuzkoako

Azpeitiarekin batera osatutako ligaxkan lehenengo geratu dira durangarrak, eta, ondorioz, Euskal Ligan tokirik baldin badago eurentzako izango da.

Mailaz igotzeko aukerarik sortzen bada, aprobetxatu egingo dute, nahiz eta horrek ahalegin berezia eskatuko dion taldeari: babesletza handitzea, joan-etorri luzeagoak... Kurutziagak bigarren talde bat ere badu, eta handik jokalaria batzuk batzea da asmoa. Horretarako, B talderako jokalaria bila dabilta. ■ J.D.

Aste honetan edo hurrengoan esango diete Euskal Ligan tokirik badaukaten

Grande Bouclen lehian ari da Eneritz Iturriagak

Safi-Pasta Zara taldeko Eneritz Iturriagaetxebarria txirrindulari abadiñarra Grande Boucle itzulian lehian ari da; txirrinduzale askok Tourreko oinordeko lez hartzen duena. Horixe izango da Durangaldeko ordezkaritza bakarra, Bizkaia-Durango-Champion System taldea ez baitago parte-hartzaileen artean.

Itzulia atzo hasi zen eta etzi amaituko da, Irundik abiatuko den etaparekin. Besteak beste, Jaizkibel eta Erlaitz gainak pasako dituzte txirrindulariek, Angelun helmugaratu aurretik.

Urkiolako bosgarren igoera jokatu dute domekan

Bidezabalek antolatuta, Serafin Amezua "Txaraka"-ren omenezko V. Urkiolako Igoera jokatu dute etzi, 10:00etatik aurrera. Parte-hartzaileak Zelaletako San Trokaz elizatik irten, Atxartetik igaro eta Urkiolako San Antonio elizan helmugaratu dute, 7,6 kilometroko ibilbidea osatuta. Egunean bertan eman daiteke

Peio Agirrebeitiak eta Alizia Romerok irabazi zuten iaz

izena, edo honako helbidean: inscripciones@bidezabal.com.

Gizonen zein emakumeen mailetan, lehenengoak 150 euro, bigarrenak 100 eta hirugarrenak 75 jasoko ditu. Abadiñoko lehen korrikalariari 100 euroko saria emango diote.

Iaz Peio Agirrebeitiak irabazi zuen gizonen artean (28.27ko denbora) eta Alizia Romerok emakumeen artean (46.27). Agirrebeitiak goitik behera agindu zuen, eta bakarrik helmugaratu zen, Jose Lagarderen aurretik. Romerok ere ia minutu biko aldea atera zion Inma Ruizi.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Laugarren errege magoa

Ia amaitu da denboraldia eta udaren atarian gagoz. Futbol munduan zurrumurruen sasoia heldu da, gero fitxajeetan gauzatuko diren zurrumurruek: diru-mugimendua handik hona, hurrengo denboraldiko helburuak lortzeko.

Eta denen gainetik aspaldiko pertsonaia bat agertu da, Florentino Pérez, eta, merkatua apurtu dau barriro be: 161 milloi euro gastatu ditu Kaka eta Cristiano Ronaldogaitik. 161 milloi! Sinestezina! Heldu da laugarren errege magoa.

Batzuetan neure buruari galdetzen deutsat ia egiazko diru kopuruak diren ala denoi adarra jotzen baino ez dabilen. Taldeen artean horrelako diferentziak egotea ona da konpetiziorako?

Kamiseten salmenta, irudi eskubideak, birak munduan zehar... pertsonaia horrek uste dau errentagarritasuna aterako deutsela fitxaje horrei, baina, ez badeutso ondo irtetzen? Horrelako negozio gizona bada, zergaitik ez da politikara aurkeztzen? Jentearen miseriak desagertuko litzateke, ezta?

Guretzako ondo ze, hurbiletik jarraituko doguz izarren aktuazioak, baina orokorrean... futbolak eta negozioak elkarren beharra daukie, eta geroago eta nabariagoa da. Talde askorentzako kontrato majo bat sinatzea edo dirutzak batutakoren bat agertzea ia mailaz igotzea beste-ko lorpena da. Eta hori gertatzen ez den bitartean, aurtengo kasuei (Real, Valentzia, Alaves, Celta, Levante,...) beste hiru-lau taldek jarraituko deutse hurrengo denboraldian. Seguru.

Adituarentxokoa

Chambaok irabazi du Berrizko futbito lehia

Berrizko futbito maratoin Durangoko Chambaok taldea izan da onena. Finalean Rayo Atalallo taldea menderatu zuen (4-1). Lehenengo zatian erabaki zuten partidua eta bigarrenengoan errentari eutsi zioten.

Paulaner eta Lisenciados hirugarren eta laugarren geratu

ziren. Golik gutxien Chambaok taldeko Ander Gallego atezainak jaso zuen. Jokalaririk golegileena, berriz, Rayo Atalallo taldeko Jose Manuel Rueda izan zen.

Aurtengoa 25. aldian izan zen maratoina, eta inoiz baino jende gehiago batu zen finalean: 600 lagun inguru.



Garaikur galanta jaso zuen talde irabazleak. Kepa Aginako

A CENTRAL
FORESTAL

Baserritarren eta
Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

Oizpe, Mallabia eta Mañaria klubaren arteko finalerako txartel bila gaur

Gazte mailan, Abadiñoako Atxarte finalean dago jadanik, multzoko buru geratu ondoren



Martitzenean Tornosolon entrenatu zuten Ismael Larrazabaek, Oier Elorriagak, Ander Martinek eta Unai Martinek. Judit Fernandez

